
HERRI MUGIMENDUA(K)

Eraginkorra(k) ote?



Hausnarketarako
Elkarrizketak



2026/10

Argitaratzailea:
Joxemi Zumalabe Fundazioa

Koordinazioa:
Joxemi Zumalabe Fundazioa

Testuen edizioa eta zuzenketak:
Igone Mariezkurrena

Diseinua eta maketazioa:
Nagore Koch Elizegi

Inprimategia:
Antza S.A.L.

Lege Gordailua:
D 1052-2026

Joxemi Zumalabe Fundazioa

Bizilur
Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako Erakundea
Asociación para la Cooperación y el Desarrollo de los Pueblos

Bizilur erakundeak eta Joxemi Zumalabe Fundazioak honako erakundeen babesa jaso dute:

LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN Y SOLIDARIDAD

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Aurkibidea

4
AURKEZPENA

8
AITZIBER ROMERO

12
ANNA GABRIEL

16
BEINAT AGINAGALDE

20
BEINAT IRASUEGI

24
BOUBACAR DIOUF

30
EDURNE ELIZONDO

34
EL HOUSSINE YAGOUBI

38
EÑAUT ELOSEGI

42
IZAR MENDIGUREN

48
JOSEBA ALVAREZ

52
LUIS FUENTES

56
MARI CARMEN MORENO

60
OIHANA ETXEBARRIETA

64
JOSEFINA 'TXEFI' ROCO

68
TXOMIN POVEDA

72
ULISES DOMECH

76
UNAI ISASI

80
ZIGOR MERODIO

Herri Mugimendua(k): eraginkorra(k) ote?

Herri Mugimenduak ezinbesteko tresna dira gizarte eraldaketarako. Egiteko horretan, jakina, badituzte indarguneak eta ahulguneak, buruhausteak eta berezko aterabideak diseinatzeko gaitasuna, baita testuinguru politiko eta soziala aldatzearekin batera etorri diren erronka eta aukera berriak ere.


Joxemi Zumalabe Fundazioko eta Bizilur Elkarteko kideok kezka horretan bat gatozenez gero, Euskal Herriko Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoaz hausnartzeko gogoeta-ekintza prozesu parte-hartzailea abiatu genuen 2024an, eskuz esku.

Bi urteko bide emankorra izan da. Eztabaidak, tailerrak, solasaldiak eta bidaiak egin ditugu, besteak beste. Horien bitartez, halaber, Herri Mugimenduen eta euren eraginkortasun politikoaren analisia garatu dugu, eraginkortasun politiko hori mugatzen duten hainbat korapilo identifikatu ditugu eta horietako batzuk askatzeko tresna praktikoak sortu ditugu. Ez da lan makala izan!

Bada, prozesu horren baitan, Euskal Herri luze-zabaleko 19 militanterekin elkarrizketa sakonak izan ditugu, euren ekarpenen bidez Euskal Herriko Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoari buruzko gogoeta eta oinarri teorikoa maila kualitatiboan elikatzeko.

Hainbat irizpide eta faktoreri dagokionez oreka bermatu nahian hautatu ditugu 19 solaskide horiek: generoa, jatorria, eremu geografikoa, adina, borroka esparrua eta korronte politikoa, kasu. Jakin badakigu laginketa horrek ez duela Euskal Herriko Herri Mugimenduen aniztasuna ordezkatzen, baina ahalik eta osoena izan dadin saiatu gara.

Berdin antzeko gaiei buruz galdegin diegu guztiei, hiru bloke handitan multzokatuta.



Lehenik eta behin, Herri Mugimenduak eta eraginkortasun politikoa zer ote diren definitzeko desafioa luzatu diegu. Helburuak lortzearekin erlazionatu behar al dugu?, adibidez.

Bigarrenik, Euskal Herriko ziklo politiko berriari begira jarri gara eta horrek jardun militantean eragin dituen aldaketak ekarri ditugu mahai gainera. Esate baterako: zenbat eta nola lotzen da jendea orain borroketara? Teknologiak eta sare sozialak arerio ala aliatu dira?

Eta, amaitzeko, etorkizun hurbilean Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa indartzeko ildoak izan ditugu hizpide: zein dira mugak eta nola gainditu?

Elkarrizketa horien guztien mamia laburtu dugu eta orriotan bilduta doakizue, Euskal Herriko Herri Mugimenduetako militanteentzat gogoetarako bitarteko egokia direlakoan.

Goza ezazue irakurketaz beraz, eta hausnarketa on!

Liburuxka:

Herri Mugimendua(k): eraginkorra(k) ote? Hausnarketarako elkarrizketak izeneko liburuxkan, Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoari buruzko gogoeta-ekintza prozesuaren baitan Euskal Herriko 19 militanteri egindako elkarrizketak bildu ditugu, formakuntzarako eta eztabaidarako baliabide gisa.

Liburua:

Herri Mugimendua(k): eraginkorra(k) ote? Gogoeta-ekintza prozesuaren ondorioak izeneko liburuan, 2024tik 2026ra bitarte egindako hausnarketa prozesuaren sistematizazioa jaso dugu. Besteak beste, metodologia, oinarri teorikoa, Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa mugatzen duten korapiloak eta horietako batzuk askatzeko tresna praktikoak azaldu ditugu.

Erreportajea:

Herri Mugimendua(k): eraginkorra(k) ote? dokumentala lau ataleko ikus-entzunezko erreportajea da eta 2024-2026 bitarteko gogoeta-ekintza prozesuaren nondik norakoak erakusten ditu.


A COSTA...
REN AU


RKA,

Eraginkorra(k) ote?

Herri Mugimendua(k)



“Lortu behar dugu jendeak ulertzea militantziak babes-sare bat eta komunitate bat ematen dizkizula, arazo jakin eta zehatz batetik harago hortxe segituko duena”



AITZIBER ROMERO SANCHEZ

Gasteiz, 1994

Gazte Zukgua prozesuarekin –2013– bizi izan zuen bere aurreneko esperientzia militantea, 15 urte zituelarik. Segi-k ibilbidea amaitutzat eman ostean, gazte independentista eta ezkertiarren bilgunea izango zen antolakunde bat sortzea zen ekimen haren helburua.

Zenbait urte hiritik kanpo pasatu ostean, Gasteizera itzuli eta borroka feministara batu zen: "2016ko Feministok Prest egunaren harira hasi nintzen, eta hurrengo urteetan ere horretan jarraitu nuen", dio. 2019an Gasteizko hainbat gunetako emakume eta sexu-genero disidenteak elkartzen hasi ziren, eta ixten, okupazio helburuekin. Hala jaio zen Talka proiektua, "feminismoa lantzeko espazio berri bat" sortzeko asmoz. Bi okupazio gauzatu zituzten hiriburuko Alde Zaharrean eta, hura bukatutzat eman zutenean, auzoan bertan segitu zuen etxebizitzaren auzian engaiatuta.

Gaur egun, Auzoan Bizi Etxebizitza Sindikatua eta Mugimendu Feminista dira bere militantzia esparruak.

Urduritasuna aitortu du gonbidapenari baietz esanda ere, horrelako ariketek beti azaleratzen omen diotelako bere buruarenganako ziurgabetasuna. Erantzuten jakingo ote duenaren zalantzaz heldu dio gogoetari: "nire bizipenetatik hitz egingo dut".



> ***Arazoak gorpuzteak laguntzen du eraginkortasun politikoa lortzen, arazo bat zure sentitzeak bultzatzen zaituelako militatzera"***

Komunitate politikoak osatzen dituzten taldeak dira Herri Mugimenduak. Borroka zehatz baten bueltan antolatzen dira era autonomoan, tokian tokikoak dira eta bertatik bertara egiten dute lan.

Herri Mugimenduen eraginkortasunaz pentsatzeak helburuekin alderatzera narama. Eraginkortasuna gehiago lotzen dut kanpoko faktoreekin eta, aldiz, helburuak barne-mailako zerbait dira. Bien arteko oreka lortzea litzateke onena. Edozein kasutan, eraginkortasun politikoa kanpora begira zein barrura begira lor daiteke, indibidualean zein kolektiboan. Esate baterako, militanteen beraien arten eragin eta horien bizitza-ohiturak aldaraztea ere izan daiteke eraginkortasun politikoaren seinale. Eguneroko jardun militanteak lortzen duen aldaketa oro, handia zein txikia, da eraginkortasun politikoa.

Nire ibilbidean, nagusiki, lehenengo Greba Feminista gogoratzen dut, bereziki eraginkorra izan zelako. Apustu bat egin zen, eta mahai gainean jarritako helburu asko bete ziren, bai kanpora edo gizarteari begira, eta baita Herri Mugimenduari eta antolakundeei begira ere. Ekimen hark greba borrokarako tresna gisa eta greba kontzeptua bera zalantzan jarri zituen, eta guztia berreraikitzea ekarri zuen: greba antolatzeko nahiz egiteko beste modu batzuk, beste parte-hartzaile batzuk, etxeko langileak eta zaintza-langileak, kasu. Ez zuen zerikusirik eduki ordura arte Euskal Herrian ezagutu genituen gainerako greba orokorrekin. Bigarren Greba Feminista, ordea, desberdina izan zen. Instituzioek eta jendarteak diskurtso hura asimilatu zuten argi eta garbi, eta, beharbada, zaila izan zen horri aurre egitea.

Beste esperientzia garrantzitsu bat, eta oso polita, Talka espazioa izan zen. Gasteizko Alde Zaharrean feminismoa lantzeko espazio ez misto bat eskaini nahi genion auzoari. Kristoren jauregia –Alava-Velasco Jauregia– okupatu genuen lehenengo, espazio pila bat genuen, baina ez genuen lortu gure saretik pixka bat urrunago zeuden emakumeak erakartzea proiektura.

Horrek pentsarazten dit arazoak gorpuzteak laguntzen duela eraginkortasun politikoa lortzen, arazo bat zure sentitzeak bultzatzen zaituelako militatzera.

> ***Sare sozialak oraindik ez daude presente gure jardunean, eta horrek asko mugatzen du gure irismena"***

Izan ere, gaur egun, duela hamar urteko errealitatearekin alderatuta, askotariko ofentsibak lehen pertsonan bizitzen ari gara. Iraganean, beharbada, arazoen irakurketa politikoak egiteko joera zegoen; orain auziak gorpuztu egiten ditugu, eta horrek garamatza aktibatzera, oinarri-oinarrizko beharrizanak –etxebizitza, elikadura– bermatzeko antolatzera. Horrek bide eman beharko liguke Herri Mugimenduak indartzeko, baina errealitatea oso bestelakoa da eta sentsazio kolektiboa da gainera.

Komunikatzeko moldeak ere nabarmen aldatu dira hamarkada honetan. Baina gu ez gara garai berrietara egokitu eta horregatik galdu dugu gure mezuak eta diskurtso politikoa



helarazteko eta ulertarazteko gaitasuna. Jarraitzen dugu kalean pankartak jartzen, kartelak maketatzen eta sare sozialetara igotzen; baina horrek eragin mugatua du jada, denbora handia inbertitzen dugu, baina ez digu hainbesteko emaitza ematen. Gainera, jarraitzen dugu Twitter-i lotuta –orain X– jakinda gazteak TikTok-en daudela. Ez dugu behar bezalako hausnarketarik egin. Urgentziak jan egiten gaitu. Okupazioa kriminalizatzen duten diskurtsoak, ordea, oso presente daude sare sozialetan eta komunikabide guztietan. Guk ez diegu dagokien inportantzia eman, oraindik ez daude presente gure jardunean, eta horrek asko mugatzen du gure irismena.

> ***Militatzen hasi nintzenetik gaur arte, sortu diren harreman pertsonalak dira niretzat garrantzitsuena”***

Militatzen hasi nintzenetik gaur arte, militantzia espazio horietan guztietan sortu diren harremanak eta loturak, pertsonalak ere bai, dira niretzat garrantzitsuena. Eta uste dut, hain justu, hori izan daitekeela modua etorkizunari begira Herri Mugimenduetako kide askok dugun nekeari buelta emateko. Alegia, lortu behar dugu jendeak ulertzea militantziak babes-sare bat ematen dizula, komunitatea bat ematen dizula, arazo jakin eta zehatz batetik harago hortxe segituko duena. Hori jarri behar dugu erdigunean, eta balioetsi.

Auzoan Bizi Etxebizitza Sindikatua sortu genuenean, esate baterako, hasierako bilera estrategikoetan helburu gisa finkatu genuen oinarri militante sendo bat eraikitzea. Sindikatura ‘kasu’ bezala iristen zen jendea ‘militante’ bezala geratu zedin nahi genuen, eraldaketa prozesu hori bideratzea izan zen gure lehen-lehen helburua.

Herri Mugimendua(k)

Eraginkorra(k) ote?



ASSEMBLEA NACIONAL CATALANA

> ***Eskuhartze politikorako leku pribilegiatua da udalerria, eta eraginkortasun handiko jarduna munizipalismoa”***



ANNA GABRIEL i SABATÉ

Sallent de Llobregat, 1975

Familia apal eta ezkertiar batean jaio zen, ideia anarkista eta komunistak arnastu zituen etxean, eta 16 urterekin hasi zen herriko plataforma antifaxistan militatzen. Bartzelonara lekualdatu zen ikastera, eta han hurbildu zen Mugimendu Independentistara. Lanaren Konfederakunde Nagusian (CNT) afiliatuta dago, Endavant Herrialde Katalanen askapen nazionalaren erakunde sozialistako kidea da eta, 2002az geroztik, CUP (Candidatura d'Unitat Popular) erakunde politiko asanblearioan militatzen du. Kataluniako Parlamentean biltzarkide izan zen 2015eko hauteskundeen ostean, harik eta Kataluniaren independentziarako 2017ko erreferendumaren osteko jazarpenak erbestera eraman zuen arte.

Militantzia, beretzat, ez da obligazioa baina bai "biziarteko konpromisoa", eta aitortzen du horrek higadura ere badakarrela: "zure aukera ez dela gehiengoarena ikusteak amorrua eragin dezake, eta amorrua, ez baduzu bideratzen, suntsitzailea da". Zintzo hitz eginez hasi du gogoeta, "konfiantza osoa" sentitzen du-eta proposamen honen aurrean.



> ***Betierekotzat genituen lorpen asko berehala gal daitezke”***

Errealitatea eralda dezaketen komunitateak dira Herri Mugimenduak. Eta, hortik aurrera, gainerako etiketa teorikoekin malguagoak izaten ikasi behar dugu. Esate baterako, nire herriko inauteriek ez dute iraultza egiteko borondaterik, ez dute definizio ideologikorik eta kide askok ez dute formakuntza teoriko-politiko handirik. Baina autoantolakuntzaren logika darabilte %100ean, antiautoritarioak dira zeharo, espazio publikoa aldarrikatzen dute, satira, eta jarrera militante bikaina dute. Herri Mugimendua dira.

Instituzioa, zehazki udalgintza, ez nuke definizio zabal horretatik kanpo utziko. Udalerria baita lehen eskala humanoa eta militantea. Gure bizilagunak dira, gure kaleak, gure saltokiak, gure lantokiak; aurreneko elkarbizitza esparrua da. Horregatik, eskuhartze politikorako leku pribilegiatua da udalerria, eta eraginkortasun handiko jarduna munizipalismoa, zure eragin-eremua den hori zure bizilekua ere badelako.

Militantziakideek elkar ongi ezagutzea garrantzitsua da, zintzotasunak eta gardentasunak asko samurtzen dituztelako gauzak. Hori herrietan gertatzen da nagusiki, eta hirietako auzo batzuetan, oraindik, ere bai: errazagoa da nork bere lekua aurkitzea eroso militatzeko eta, beraz, ez da sortzen batzuetan mugimendu politikoek eragiten duten beldurhesi hori. Hirietan, aldiz, jendeak gutxiago ezagutzen du elkar eta, maiz, exijentzia organiko-dogmatikoak gailentzen dira militanteen dinamiketan, gehiago lerrokatzen dira agenda nazionalarekin.

Horrenbestez, maila ezberdinetako borroka instituzionala planteamendu politiko oso baten baitako pieza gisa ulertzen dut, eraldaketarako tresna bat gehiago bezala, betiere erakunde publikotik egiten dituzun politikak jendearen bizi-baldintza materialak aldatzera bideratzen badituzu, zinegotzi gisa duzun jarrera koherentea bada eta maila diskurtsiboan nahiz praktikoan eraldaketa sustatzen baduzu. 2003an gure udalerriko parkean eskola publikoaren parean zegoen monolito frankista eraitsi genuen, Udal gisa bota genuen, eta horrek nolabaiteko arrastoa utzi zuen herritarren imajinario kolektiboan. Udal gobernu batek eraitsi zuelako beste herritar batzuek, frankistak baina bizilagunak, diktadura betean eraiki zutena.

Dena dela, ikusten ari gara betierekotzat genituen lorpen asko berehala gal daitezkeela, eskubideei dagokionez kasu, eta balioak ere erraz diluitzen ahal direla. Horregatik, denbora luzez lorpenak helburuak betetzearekin lotu izan baditugu ere, hori birpentsatzen hasi behar dugu, aldaketa aukera berriak, ezberdinak, identifikatzeko gai izan behar dugu, sormena eta irekidura behar ditugu. Gertuko testuinguruan, nazio mailako mugimendu emantzipatzaile bakar batek ere ez ditu bere helburuak lortu eta, ondorioz, estrategietan sakondu beste aukerarik ez dugu. Jarrai dezagun bide berriak urratzen, ibiliz erresistentzia egiten dugulako eta, arian, ardura kolektiboa irabazten dugulako, sentsible eta aktibo mantentzen garelako, gizatiar.

> ***Esfera elektoralean dabiltzanak errealitatean sustraituta mantenduko dituzten Herri Mugimendu indartsuak behar ditugu”***

Euskal Herriko ziklo politiko berriari dagokionez, alde batetik, Ezker Abertzaleak emaitza elektoral ikusgarriak lortu ditu, kontuan izanda ilegalizazio garai oso gogorretik zetorrela. Eta egindako bideak ahalbidetu du, baita ere, presoak hurbiltzea eta askatzea. Erabateko errespetua diot horri. Baina, beste alde batetik, aspalditik ezagutzen dugun eta maite dugun jende askok esan digu albo batera egiten ari

direla. Eta horrek, galderak ez ezik, alarmak pizten dizkit: Ezker Abertzalearen gaur egungo zuzendaritzak nola eraikiko du Mugimendu bat beste jende hori guztia atzean utzita? Baldintza gabeko maitasunetik diot, Ezker Abertzalea eskola politikoa izan delako guretzat, erresistentzia eta duintasun erreferente garrantzitsua.

Hauteskundeen munduan sartzen zarenean, horri loturiko aldagaiak agertzen dira: egoak, kamerak, estetika, janzkera... zerk du garrantzi handiagoa? Oratoria ona izateak? Ibilbide militante sendoa edukitzeak? Kide baten garrantzia neurtuko dugu sare sozialetan duen jarraitzaile kopuruaren arabera? Militanterik zintzo eta prestuenak ere, instituzioetan sartzen direnean eta pisu publikoa hartzen dutenean, mugimendu arraroak egiten hasten dira. Hain justu horregatik, instituzioetan egoteaz aparte, Herri Mugimendu indartsuak behar ditugu, esfera elektoralean dabiltzanak heldu eta errealitatean sustraituta mantenduko dituztenak. Hori da eduki dezakegun tresnarik eraginkorrena, eta ezin da inprobisatu. Herrian eta herritik sortutako konfiantzazko loturek mantentzen gaituzte garen horri atxikita, eta oinarri horretako pertsonek gogoraraziko digute zer den politika. Instituzioek nola aldatzen gaituzten... luze eta zabal hitz egin genezake horretaz!

Instituzioak aldaketa-palanka izan daitezke baina, zergatik infiltratzen da polizia oinarri-oinarrizko espazioetan? Zergatik infiltratu zen gure Ateneoetan edota ikasleen nahiz etxebizitzaren aldeko asanbleatan? Jakin nahi dute nork aktibatzen duen nor, nork duen lidergoa, nola nahasten dira 'indepeak' eta 'anarkoak' kaleak pizten direnean? Tokian tokiko eta oinarriei buruzko informazio hori eduki nahi dute, oso baliotsua delako Herri Mugimenduen potentzialtasuna ezagutzeko.

Dagokien testuinguruan ongi kokatutako mugimenduak, mikro esfera hori, inoiz baino beharrezkoagoa da orain, kontrahegemonia bat sortzeko tresna omen zirenak, sare sozialak alegia, aurkariarentzat izaten ari direlako eraginkor. Internet, Indymedia, Twitter... agertu zirenean, pentsatzen genuen lagungarri izango zitzaizkigula saretzeko eta lehenago kartelen edota fanzineen bidez egiten genituen deialdiak zabaltzeko. Eta, hara non, sareetako gorroto diskurtsoei nola aurre egin eta gazteek Youtuberrak ez diren beste erreferente batzuk eduki ditzaten asmatu nahian gabiltza orain.

"Subiranotasunak hartu behar ditugu iparrorratz"

Beharbada, gaur egunean ari gara gogoeta egiten eta proiektu interesgarriak martxan jartzen, baina maiz iraganeko epika eta formekin. Klase-borrokaren inguruko fetitxismoak alboratu behar ditugu eta subiranotasunak hartu behar ditugu iparrorratz: materiala eta mentala. Izan ere, elikadura-, energia- nahiz etxebizitza-subiranotasunak ezinbestekoak dira sistemari nahiz Estatuari aurre egiteko. Eta ez diogu uko egiten estatu espainiar nahiz frantziarrarekiko independentziari, ezta erakunde europar eta finantzarioekiko independentziari ere. Ezta patriarkatuaren aurkako borrokari ere. Gaur egungo abagunean ez zait beste erresistentzia modurik bururatzen.

Era berean, nolabait behartuta gaude lidergoa belaunaldi berriei ematera, eurek guk baino askoz hobeto konektatuko dutelako datorrenarekin. Eurak jada teknologiari estuki loturiko harreman eredu baten baitan jaio dira, gureekin zerikusirik ez duten beste aisialdi-ohitura batzuk dituzte, beste kodigo batzuk... Gure esperientzia balioan jartzen jarraitu behar dugu, baina haiei segika.

Eta, gogora dezagun daukaguna heroikoa dela! Hau da, ez gaituzte akabatu, memoriak bizirik dirau, eta badira altxamendu-, hausnarketa- zein eztabaida-guneak. Badira Herri Mugimendu indartsuak, iradokitzaileak... Saia gaitezen elkarren berri izaten, elika dezagun jakinmina, senti gaitezen komunitate anitz baten parte. Izan ere, ez dugu Herri Mugimendu eta militantzia eredu bakarra behar, baizik eta euren testuinguruetan zentzua duten nukleo sustraituak.

Eraginkorra(k) ote?

Herri Mugimendua(k)



FOKU

> *Borroka bat eraginkorra da helburu orokorreranzko bidean baldintza egokiak sortzeko balio badu”*



BEINAT AGINAGALDE

Hernani, 1983

15 urte zituela hasi zen militatzen Jarrai gazte erakundean. Euskal Herria "askatasunaren alde" borrokatzen ari zela eta helburu abstraktu horri "bere ekarpena" egin behar ziola sentitu zuen. Herriarenganako maitasunak ere mugiarazi zuela gogoratzen du eta, urte hauetan guztietan "kontzientzia eta formakuntza politikoa" garatu dituen arren, funtsean hasierako intuizio horiei atxikita segitu duela dio.

Gerora Gazte Mugimenduko hainbat eragiletan jardun zuen, baita Ikasle Abertzaleak-en ere unibertsitate garaian. Jaioterrian, Hernanin, Ate Joka etxebizitza duinaren aldeko plataforman aritu zen, eta gazte asanbladaren nahiz gaztetxearen sorreran parte hartu zuen. Une batetik aurrera ETAn aritu zen, bai militante legal gisa eta baita klandestinitatean ere. Frantzian atxilotu zutenetik Euskal Preso Politikoen Kolektiboko (EPPK) kidea da.

Horrenbestez, legez kanpoko erakundeetan militatu izan du nagusiki. Horrek, dioenez, zeharo baldintzatu izan ditu urteetako gogoetak, lana eta arriskua, baita bere mundu ikuskera ere.

Lehen kolpean zalantzak besterik ez dizkio sortu hausnarketa hau egiteko gonbiteak: "2009tik kalea zapaldu ez duen bat pertsona egokia ote da Herri Mugimenduei buruz jarduteko? Hain periferian dagoen baten burutazio eta sentipenak baliagarriak izan dakizkioke inori? Zer eskaini dezaket espetxetik?" Beldurren gainetik, gogoa gailendu da, ordea.



Subjektu eraldatzaileen fede onean eta ahaleginean dut jarria konfiantza, eta ez ustezko arrakastaren fetitxean"

Herri Mugimendua izena erabili izan dut, singularrean, beti eduki dudalako oso barneratuta, hainbat adabaki eta lan-esparru zituen arren, nazio askapen prozesua bat eta bakarra zela. Ziklo aldaketak hori guztia itzulipurdikatu du, eta orain Herri Mugimenduez jarduten gara, pluralean, jada ez baita gailentzen narratiba handi baten aterkipeko eragile-konstelazioaren ideia.

Horrenbestez, gaur egun, sindikatu nahiz alderdi politiko klasikoen eta herri xehe ez antolatuaren artean dauden eragile sozial, politiko eta kulturalen multzo lausoa dira Herri Mugimenduak, multzo ez guztiz finkatua ezta koordinatua ere. Bizitza sozialean eta politikoan eragitea dute helburu eta, bide instituzional hertsiak baliatu ordez, bestelako tresnak darabiltzate.

Abstraktuan esanda, helburuen eta bitartekoen arteko doikuntza da eraginkortasuna. Baina praktika askoz ere konplexuagoa da, besteak beste, auzi etikoak sartzen direlako jokoan eta xede batzuk besteak baino lorgarriagoak direlako. Dena dela, eraginkortasuna soilik arrakastarekin lotzearen zamak antsietate paralizatzailea sorraraz dezake; horrek, era berean, oportunismoan eta efektibismoan erortzeko arriskua dakar, eta gauzak nahi bezala ateratzen ez direlako ezkortasunean erortzeko tentaldia ere bai. Benetako mugimendu eraldatzaileek, ordea, euren indarren araberako apustuak egiten dituzte, emaitza ziurra izan gabe ere. Askotan, porrotez porrot iristen gara helburuetara eta, horregatik, nik subjektu eraldatzaileen fede onean eta ahaleginean dut jarria konfiantza, eta ez ustezko arrakastaren fetitxean. Izan ere, borroka bat eraginkorra da helburu orokorreranzko bidean baldintza egokiak sortzeko balio badu.

Urteetako lanaren sinbolo gisa gogoratzen ditut, esate baterako, Gazte Topaguneak, militantzia eta errepresioa hain lotuta zeuden garai hartan. Medikuntza Fakultateko asanblada sortzea eta hori euskalduntzeko lana ere lorpen handia izan zen, historikoki kasik politizatu gabeko fakultatea zelako. Herrian, Hernanin, etxebizitzaren arazoa gizarteratu genuen eta gaztetxearen aldeko dinamika sortu genuen; biek ala biek arrakasta gorabeheratsua izan zuten eta helburu gorenak lortzetik urrun daude oraindik, baina eraginkorrak izan ziren hala ere.

Kataluniako Prozesua eta borroka feminista ere esperientzia eraginkorrak iruditzen zaizkit, kontzientzia-hartze bat inplikatu dutelako eta posizio ideologikoak erradikalizatu dituztelako.

Beste borroka ustez arrakastatsu zen-baitek, ordea, irakurketa politikoa lausotu dezakete jendea erakartzeko bidean. Publiko zabalarentzat onargarriagoak diren diskurtsoen bitartez jende gehiago mobilizatzen dute. Gure Esku dinamika herritarrak, adibidez, autodeterminazio eskubidearen kontzeptu klasiko eta ongi definitua ordezkatu du eta erabakitzeko eskubide lauso eta politikoki anbiguoaz jarduten du orain, hainbat sektoreren begietan onargarriagoa delakoan. Horrek, baina, dinamika kamustu du. Politikagintza profesionalean ere oso nabarmena da joera hori, bozka asko lortzearekin eta horien bitartez botereguneetan sartzearekin lotu dutelako eraginkortasun politikoa. Politikaren ikuskera zabalagoa badugu, ordea, gizartea eraldatzearekin lotzen badugu, instituzioetatik kanpo ere, eta horiek baldintzatzeko, helburuetaranzko bidean jarri behar dugu arreta eta ahalegina.

> ***Ezkerrak, oro har, gabezia estrategiko handiak ditu praktika politiko erradikal bat abiarazteko eta gizarte eredu alternatibo bat duela ikusarazteko"***

Eraginkortasun politikoari buruzko eztabaidaren baitan aldaketa ugari gertatu dira azken urteotan Euskal Herriko testuinguru politikoan. Paradigma aldaketa gauzatu du Ezker Abertzaleak, eta abertzaletasun erradikal dei genezakeen hura mugimendu legal, pragmatikoago eta zentratuago bilakatu da. Egitura administratibo autonomikoetan lortutako indarraren eraginez, eta bertan egiten den lanak duen zentraltasuna dela medio, irudipena dut egitura horiek oinarri militantearen eskema mentaletan duten pisua garai batekoa baino handiagoa dela. Lurraldetasuna aintzat hartuta Euskal Herri osoarentzat eta osorako baliagarriak diren dinamika disruptiboen falta sumatzen dut eragile abertzaleen baitan. Laburbilduz, estrategia nazional bateratu baten falta sumatzen dut. Politikagintzan, bestalde, eskaintza sinplifikatu da eta, egun, joko-zelaia Eusko Alderdi Jeltzalearen eta EH Bilduren arteko lehiak ezaugarritzen du, hein handi batean.

Bestalde, LGTBIQ+ borroka indartu da, larrialdi klimatikoaren gaiak oihartzun handiagoa du eta, batez ere, borroka feministak hartu du zentraltasuna, esparru askotara hedatu delako eta gainontzeko eragileak interpelatzeko gaitasuna erakutsi duelako.

Gazteen artean Gazte Koordinakunde Sozialistaren (GKS) sorrerak lurrikara handia ekarri du, Ezker Abertzalea gogor kritikatu eta militantziaren zati bat bereganatu du. Gaztetxe eta gazte asanbladen berrantolaketa ere eragin du.

Espetxe barruan gertatu den aldaketa nagusia 2017an lege-bideak onartzeari lotuta dago. Espetxearekiko konfrontazio zuzena alboratuta, presoon jarduteko moduak asko aldatu dira azken urteotan. Kanpoan militantzia eredu erosoagoak sortu omen dira, bizitza pertsonalarekin bateragarriagoak, jada ez 24 ordukoak. Baina militatzeko era errazagoek ez dute berez jende gehiago erakartzen; borroka bera erakargarria bada atxikiko da jendea horretara.

Teknologia berriak maiz ekartzen dira mahai gainera ezkerraren gabeziez ari garenean, eta kezkaz aipatzen da eskuin muturra eraginkor ari dela sareetan bere mezuak zabaltzen. Baina tresnak gutxienekoa dira, gure hutsuneen kausen diagnostiko zuzena egiteko beste zerbaitetan jarri behar dugu fokua: ezkerrak, oro har, gabezia estrategiko handiak ditu praktika politiko erradikal bat abiarazteko eta gizarte eredu alternatibo bat duela ikusarazteko.

> ***Delegazionismorako, profesionalizazioranzko eta indibidualismorako jarrerak indartzen ari dira"***

Arazoak arazo, Herri Mugimendu anitza, antolatua eta mobilizatzailea dugu Euskal Herrian, olatu erreakzionario baten erdian gauden honetan balioetsi eta zaindu beharrekoa. Ahulguneak ere badira, hein handi batean gizartearen beraren gaitzei lotutakoak: delegazionismorako, profesionalizazioranzko eta indibidualismorako jarrerak indartzen ari dira.

Bestalde, zenbait eragilek alderdi politikoekiko duten menpekotasunak kezkatzen nau.

Oso garrantzitsua da Herri Mugimenduko subjektuek burujabetzari eustea, horrek aktore politikoak interpelatzeko askatasuna ematen dielako, eta haien agendetatik kanpoko praktikak garatzea ahalbidetzen dielako, haien baldintzarik gabe.

Herri Mugimendua(k)

Eraginkorra(k) ote?



> *“Eraginkortasuna lorpen txikiagoekin lotuko bagenu, sufrimendua aurreztuko genuke”*



BEÑAT IRASUEGI IBARRA

Errenteria, 1978

Iruñean eta 90eko hamarkada amaieran kokatzen ditu lehenengo oroitzapen militanteak: "Urte gogorrak ziren, baina Iruñean autonomia handia sentitu nuen militantziarako, nire burua nahiko autodidaktatzat neukan eta". Mugimendu Antiglobalistaren inguruan hasi zen, nahiz eta antolaketa argirik gabeko egitasmoak ziren artean, eta Indymedia komunikazio askerako sarea ere gogoan du.

Horretatik tiraka eta 2008ko krisialdiaren ostean, agroekologiara hurbildu zen eta teknologia libreak garatzeko "beharra" ere sentitu zuen. Talaios Koop lanerako kooperatibaren sorreran parte hartu zuen, eta Olatukoop Ekonomia Sozial Eraldatzailearen inguruko eragileen sareak 2014an argia ikusi zueneko hura ere mugarritzat du: "Deialdi baten bitartez izan zen eta ondo atera zen".

Lana eta militantzia uztartuz, Software librearen eta kooperatibismoaren esparruan aritzen da gaur egun, beretzat oso garrantzitsua delako "bizitzako alderdi ezberdinen arteko sintonia". Behin eta berriz bere artean errepikatzen duen galdera aitortuz batu da hausnarketara: "zer egin testuingurua hobetzeko?"



> ***Pertsonak militantziara erakartze hutsa ere bada eraginkorra”***

Egunerokoan esparru ezberdinetatik errealitatea eta gizartea aldatu nahi duten talde antolatuak dira Herri Mugimenduak. Gurean, masa mugimendu izatea eskatu izan zaie eta, halakorik lortu ez dutenean, beren eraginkortasuna zalantzan jarri izan da; alegia, nazio mailako borrokekin uztartzen ez zen Herri Mugimenduari ez zaio baliorik aitortu izan. Eragile txiki askok, ondorioz, gutxiespena jaso dute, ez ziotelako, beharbada, ekarpen zuzena egiten iraultzari edo aldaketari. Ikuskera hori, halabaina, aldatu egin da, aurrerapausoak eman dira plano teorikoan nahiz praktikoan eta hobera egin dugu. Arazoa, orain, jende falta da.

Eraginkortasun politikoa azkenburuko lorpenekin eta gure bizitzek hobera egitearekin lotzen dut. Eta horretan, banakakoa nahiz kolektiboa eskutik doaz, pertsonak militantziara erakartze hutsa ere badelako eraginkorra. Errenteria, adibidez, Mugimendu Munizipalistari esker asko aldatu da, eta mugimenduak berak asko aldatu du jendea.

Niri, esate baterako, Olatukoop-ek bizitzari begiratzeko modua aldatu dit, baita pentsaera eta baldintza materialak ere. Sufrimendua eta gozamena ekarri dizkit, batez ere azken hori, eta prozesu oso ebolutiboa izan da.

Euskal Herri mailan, baita ere, aipagarria da Iparraldeko Herri Mugimenduen gaitasuna eta antolaketa. Gehienbat ekologiatik eta bizitza bizigarrien markotik ari dira eragiten, eta eredugarriak dira politika instituzionaletik kanpoko ildoak planteatzen dituztelako, laborantzaren inguruan adibidez.

Pentsionisten Mugimendua ere oso indartsu ikusten dut, baita Mugimendu Feminista ere, mundu osoan. Zehazki Errenterian, Duintasuna Pentsiodunen Mugimenduak eta Mugimendu Feministak, bakoitzak bere aldetik nahiz elkarrekin, saretzeko eta mobilizatzeko ahalmen itzela dute.

> ***Digitalizazioa ez da politikoa izan, teknologien erabilera instrumentala gailentzen da, eta horrek gure helburuak ahultzen ditu”***

Praktika politikoaz ari bagara, 80ko hamarkada izan zen azpimarragarria. Orduko militantzia eredua zurruna zen oso, eta exijentzia maila altua zuen. Hori guztia aldatu egin da, noski, eta, testuinguru berrira etorrita, bi elementu nabarmenduko nituzke.

Alde batetik, indibidualizazio prozesua, kapitalismoaren helburu gisa. Politikak gazte militante asko erre ditu, nire inguruan ikusi dut hori, bereziki belaunaldi zehatz batzuetako jendea. Gaur, ordea, arreta eta denbora osasun pertsonalera eta banakako aisialdi kapitalistara bideratzen da, eta hori arazo bat da bere horretan. Indibidualizazio prozesu horrek, bestalde, komunikazioa ere busti du. Gure herrian, zorionez, kartel asko ikusten ditut oraindik, eta dagokien funtzioa betetzen dute gainera. Baina, bestela, orokorren, estetika asko



eta kritikotasun gutxi nabari dut Herri Mugimenduen oraingo komunikazio moldeetan. Digitalizazioa ez da politikoa izan, teknologien erabilera instrumentala gailentzen da, eta horrek gure helburuak ahultzen ditu.

Garai berri hau ezaugarritzen duen bigarren elementua politikagintzaren ikuspegi instituzionalaren nagusitasuna da. Beharbada nire inguru hurbilean, Errenterian, ez da horrela, baina orokorrean bai. Espainiar estatuan, adibidez, Podemos fenomenoak arrakasta izan zuen, baina gerora politika instituzionalak jendea bereganatu eta erre egin du. Euskal Herrian agian oraindik ez gara iritsi puntu horretara, baina politikagintza instituzionalak Herri Mugimendua hustu du jada.

> ***“Eraginkortasuna lorpen txikiagoekin lotuko bagenu, sufrimendua aurreztuko genuke”***

Etorkizunean Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa nola indartu pentsatzeak ‘Iraultza vs. Erreforma’ eztabaidara narama. Helburuak maximoetan finkatzen ditugunean, xede handiak ditugunean alegia, eraginkortasuna txikiagoa izaten da. Aldiz, eraginkortasuna lorpen txikiagoekin lotuko bagenu, sufrimendua aurreztuko genuke. Gainera, ikuspegi horretatik bizitzak bizigarriagoak dira, egunerokotasuna ez gutxiestera garamatzalako. Horregatik aldarrikatzen dut helburu txikiak betetzea ere badela eraginkor izatea, eta eraginkor sentitzea ona da.

Kooperatibismoaren esparruan, zehazki, mundu mailako saretzea izango da aurrerantzeko erronka nagusia. Kataluniaren, frantziar estatuaren eta Euskal Herriaren artean bada harremana eta proiektu partekatuak; baina testuinguru zabalagoan halakoak lortzea zailagoa ikusten dut. Eta muga edo arazoa ez da kooperatibismoa bera: kooperatibismoa oso eraginkorra da, Mugimendu Kooperatibo tradizionalak ez du anbiziorik, ordea.

Herri Mugimendua(k)



ECUADOR ETXEA

> **“Manteroen egoera eta bizi-baldintzak zeinen zailak diren kontuan izanda, aurrera segitzeko gogoa edukitzea bada bere horretan lorpen handi bat”**



BOUBACAR DIOUF

Dakar, 1971

Lagun baten bitartez izan zuen Mbolo Moye Dole elkartearen berri, 2015ean. Euskal Herrira iritsi berri zen artean: "entzun nuen kale-saltzaileen eskubideen alde egiten zutela borroka, ni ere manteroa nintzen, eta nire energia gehitzeko asmoz batu nintzen".

Orduz geroztik horixe da bere militantzia esparrua, nahiz eta jaioterritik bazekarren grina hori: "beti izan naiz oso borrokalaria, Senegalen herriko saltsa askotan nenbilen nahastuta, eta batez ere haur nahiz gazteekin aritzen nintzen hezitzaile".

Entzuteko eta ekarpena egiteko gogotsu, sorpresaz eta ilusioz erantzun dio deiari, asko pozten delako inork manteroen kolektiboaren berri izan nahi duen bakoitzean.



“Jende askok ez daki migratzaileek zergatik egiten duten ospa beren jaioterritik”

Mbolo Moye Dole, batez ere, espazio seguru bat da, manteroentzat eta, oro har, Euskal Herrira etorri diren senegaldarrentzat. Izan ere, kale-saltzaileen kolektiboan gehiengoa senegaldarra da. Eta, mantero izan ez arren, iritsi berri diren senegaldarrentzat ere bagara erreferentzia, lehenengo harrera-espazioa eta hasierako oinarrizko beharrak asetzeko kontaktua.

Gu hemen bizi gara eta hemengo sentitzen gara, baina ez ditugu hemengoen eskubide berdinak eta, hain justu, horren alde egiten dugu borroka. Elkarte eta kolektibo askoren babesa dugu, gure egoera aldatzea ez dago haien esku, baina gure deialdiei erantzuten diete eta beti daude gure aldean. Era berean, nik, guk, ere parte hartzen dugu besteen deialdietan, nahiz eta beti ez den erraza, etorkinen bizitza oso ezegonkorra delako eta, ulergarria den moduan, askotan beharrizan ekonomikoa gailentzen delako hitzorduen kaltetan. Ahal dugun guztiok, esate baterako, maiatzaren 1eko manifestaldira batzen gara, guk ere Euskal Herrian egiten dugulako lan, eta gure borrokak ikusgarritasuna merezi duelako. Pentsionisten elkarretaratzeetara joaten gara, arrazakeria inmobiliarioa salatzen dugu, beste elkarte eta espazioetan gure esperientzia partekatzen dugu beste pertsona batzuekin... Orduan, sare horrek guztiak espazio segurua zabaltzen du Mbole Moye Doole-tik harago.

Gure helburu behinena, eskubide berdintasuna, ez dugu lortu gaur-gaurkoz. Eta bidean finkatu ditugun beste xede batzuk ere ez dira gauzatu oraindik. Esate baterako, momentuz ez daukagu espazio fisiko bat, eta ezin izan dugu martxan jarri pertsona migratzaileei erregularizazioan laguntzeko proiektua. Baina, zorionez, ideiak eta ilusioa ez zaizkigu agortzen eta uste dut, kolektiboaren egoera eta bizi-baldintzak zeinen zailak diren kontuan izanda, aurrera segitzeko gogo hori badela bere horretan lorpen handi bat. Dena dela, orain arteko bidean izan ditugu ekimen arrakastatsuak ere, adibidez, *Argia* hedabidearekin batera abiatu genuen ‘Inor ez da ilegala’ kanpaina. Kamiseta eta poltsen salmentari esker diru asko sartu zen pandemian sortu genuen erresistentzia-kaxan. Beste iturri batzuetatik ere edan zuen kaxa hark, jendeak jakin zuen egoera ulertzen eta elkartasun ariketa handia izan zen. Familia askoren sustengua izan zen, itxialdian kaleak hustu zirenean beste diru-iturririk gabe geratu ziren eta. Manteroen aurkako polizia-jazarpena salatzeko elkarretaratzeetara jende asko batzen da, batez ere Abandoko hartan, Manteroekin Bat plataformaren bitartez. Babes hori sentitzea oso garrantzitsua da.

Bestalde, balioan jarri nahi dut diaspora senegaldarra osatzen dugunok Macky Sall Senegalgo presidente ohia boteretik kentzeko eragin genuen presioa. Amerikako Estatu Batuetan, Parisen, hemen Euskal Herrian... manifestaldi oso jendetsuak egin genituen. Dena den, harritu ninduen ikusteak mobilizazio handi haiek kasik ez zutela tarterik izan bertako hedabideetan, ezta Senegalgo istiluek ere. Jende askok ez daki zer dagoen beste aldean. Esan nahi dut: bertako herritar askok ez dakite migratzaileek zergatik egiten duten ospa beren jaioterritik.

“Jazarpena gora doa eta kale-salmenta behera”

2015ean Senegaldik Euskal Herrira iritsi nintzenean, nik ere ez nekien ia ezer hemengoari buruz. Hasieran Galdakaon bizi nintzen eta gogoratzen dut kalean euskarazko lehen elkarrizketa entzun nuenean pentsatu nuela pertsona haiek kanpotarrak zirela, turistak. Gero konturatu nintzen seinaleetan eta karteletan izenak bikoiztuta ageri zirela batzuetan, eta ezberdinak zirela. Hemen denbora gehiago zeraman lagun bati galdetu nion eta hark azaldu zidan euskara dela bertako hizkuntza. Une hartan bertan esan

nion nire buruari hizkuntza hau ikasi behar nuela, batez ere errespetuagatik. Nik neronek ere badut nire ama-hizkuntza, serer-a, eta, alderantzizko egoeran, gustatuko litzaidake kanpotik datorrenak ikastea.

Urte hauetan nire begiekin ikusi dut Euskal Herriak zenbat egiten duen independentziaren alde, gustatzen zait zuen borrokatzeko modua, eta asko ikasi dut. Ikasi dut zerbaitekin ados ez nagoenean horren aurka altxatzen eta eragiten: manifestaldiak, kartelak, mezuak zabaltzeko modu ezberdin guztiak... zuengandik jaso ditut.

Baina politikagintza kontuei buruz nahiago dut ez hitz egin, gainera politikariak ez zaizkit gehiegi gustatzen. Euskal Herria Bildu alderdiarekin bilera pare bat egin genuen aspaldi, Aniztasuna taldearekin; pertsona gehiago ere baziren han, eta nork bere esperientziak, arazoak eta beharrak azaldu zituen. Eztabaidatzen aritu ginen, baita ere, zer nolako ekarpena egin dezakeen alderdi horrek gure borrokan edo nola lagundu dezakeen ikusgarritasuna ematen. Baina, oraindik ez dut ikusi emaitza positiborik. Alderdi politikoak askoz gehiago inplikatu beharko lirateke herri eta hirietara iristen diren pertsona migratzaileen arazoak konpontzeko edo behintzat bideratzen laguntzeko: errolda dela, alokairua dela, lan-kontratuak... baina ez da inor bustitzen.

Bilboko Udalak lokal bat utzi zigun, elkartearen egoitza fisikoa izan zitekeena. Baina han ez zegoen argindarrik eta gainerako baldintza oinarrizkoenak ere ez zituen betetzen. Udalak berak ez zuen interesik izan espazioa egokitzeko, eta guk ez daukagu dirurik, beraz, itxi eta utzi behar izan genuen. Bilboko Udalari berari urtero eskatzen diogu Aste Nagusian manteroek kale-salmenta lasai egin dezaten espazio bat aitortzeko, espazio seguru bat, poliziatik ihesi ibili behar ez izateko, jaiak lan handiko egunak direlako. Baina ez digute inoiz aitortu. Kontrakoa: jazarpena gora doa eta kale-salmenta behera. Horretan zerikusi zuzena du online erosketen gorakadak. Batez ere pandemia garaitik hona izugarri aldatu dira jendearen erosketa-ohiturak eta gu ezin gara Interneten kontra lehiatu. Dena dela, sare sozialek eta Internetek ezer positiborik ekarri badigute, hori ikusgarritasuna da. Facebook eta Instagram bidez gure berri zabal dezakegu gure komunitatetik harago, nahiz eta gorrotoa ere jasotzen dugun bueltan. “Ez duzue zergarik ordaintzen baina eskubideak eskatzen dituzue” edo “lapurtzera datoz” moduko mezuak dira gehienak.

> ***“Mbolo Moye Dole-ren bueltan dabiltzan askok zailtasun handiak dituzte konpromisoak hartzeko”***

Epe ertainera begira eta elkartearen funtzionamendu egokirako daukagun arazo nagusia jende kopurua da. Oraintxe bertan laupabost lagun ari gara ideiak mahai gainean jartzen eta bilerak modu jarraian egiten. Eta gauza bera gertatzen zaigu kanpoko eragileren baten gonbidapena jasotzen dugunean... beti berdinak gara.

Berez, jende asko dabil Mbolo Moye Dole-ren bueltan, baina zailtasun handiak dituzte hitzorduetara lotzeko, konpromiso hori hartzeko. Eta guztiz ulergarria da. Pertsona migratzaileen bizitza oso ezegonkorra da, batez ere iritsi berritan. Alde batetik, etxebizitza berean luzez irautea ia ezinezkoa da eta ohikoena izaten da herri batetik bestera, hiri batetik bestera lekualdatzea. Eta, bestalde, diru-iturria izaten da lehentasuna. Hemen mantero dabiltzan batzuk tarteka Andaluziara joaten dira hango negutegietan lan egitera, adibidez. Edo, urte osoan hemen lan eginda ere, herririk herri ibiltzen dira, festarik festa, data bakoitzeko salmentarako plaza onenen bila. Horregatik, soilik tarteka inplika daitezke elkartearekin, lehentasuna bizirautea delako.

Hori horrela bada ere, kolektibo sentimendua indartsu dago. Berriki tailer sorta bat antolatu dugu manteroek euren eskubideak ezagutu ditzaten, batez ere poliziaren aldetik jazarpena eta izua jasaten duten momentuetan nola jokatu jakin dezaten, eta parte-hartzea oso ona izan da. Idea pila bat dauzkagu eta espero dugu laster horiek gauzatzeko oinarri ekonomikoa edukitzea.



NOTICIAS DE NAVARRA - PATXI CASCANTE


Las Lipex
THECA

Eraginkorra(k) ote?

Herri Mugimendua(k)



BERRIA

Sare sozialen zurrunbiloan, kapitalismoak fagotizatu egiten ditu mugimenduak, horien mezuak edukiz husten ditu etekina ateratzeko eta, hala, aldarrikapen politiko ziren horiek eslogan apolitiko bilakatzen dira”



EDURNE ELIZONDO

Bera, 1972

Kazetaria da eta, gizarte auziak lehen lerrora ekarriz, ogibidea militantzia esparru gisa baliatu izan du beti, "bidegabekerien kontra egiteak mugitzen nau", dio. *Euskaldunon Egunkaria*n nahiz *Berria*n idatzi izan du; egun *Nafarroako Hitza*ren koordinatzailea da, eta bi libururen egilea ere bai: *Itoiz porlanezko gezurra* (Txalaparta, 2004) eta *Ez dugu nahi, intsumisioaren ahotsak Euskal Herrian* (Txalaparta, 2011).

30 bat urte zituelarik hurbildu zen feminismora eta gutxira, 2004 inguruan, gerturatu zen antiespezismora: "Iruñeko talde bat zen, artean animalien aldekoa, zezenketen kontrakoa". 2005eko martxoaren 8an erabaki zuen begano bilakatzea eta, hala, bere hitzetan, borroka feminista eta borroka antiespezista bateratzea. Azken horrek eraman du, aldi berean, beste zenbait kausa hurbilagotik ezagutzera eta ulertzera, transfeminismoa eta antiarrazismoa, kasu. Pandemiaz geroztik, bestalde, osasun mentalaren esparruan ari da sakontzen, eta auzi horri ere kolektibotasunetik begiratzen dio, mugimendu antikapazitistatik.

Nor talde antiespezistarekiko esker oneko sentimendutik batu da hausnarketara: "Euskal Herriak ez daki nolako altxorra duen! Koherentzia handiko militantzia eredugarria da, zaintza erdigunean jarri duena, zeharkakoa, sektore askoren protestak bere egin dituena".



> ***Zapaltzaile gisa dugun papera onartu behar dugu beste zapalketa guztien kontra egin nahi badugu”***

Ekimen txiki anitz dira Herri Mugimenduak, eta txikitasun horri balioa eman behar zaio gainera. Ez dute zertan ekimen egituratuak izan behar, hazi horiek gero modu antolatuan garatu daitezke eta.

Borroka guztietatik ateratzen ditugu irakaspenak, galdu arren edo betiereko garaipenak izan ez arren, nolako eragina dugun ikusteko eta ikasteko balio digutelako. Eraginkortasuna ez dut, beraz, helburuekin lotzen: porrotetatik lezioak hartu eta erabiltzen ikasi behar dugu, gaur egiten dugun bideak zabalduko dizkigulako biharko aukera berriak.

Oso garrantzitsua da, bestalde, saretzea. Herri Mugimenduak batera aritzen bagara, besteen esperientzietatik ikasiz, askoz eraginkorragoak gara. Esate baterako: Itoitz eta Aroztegia; hainbat hamarkadatako aldea dago bi auzien artean, baina sistemaren logika berbera da: lurraren defentsa nahiz desobedientzia zibila kriminalizatzea, eta Herri Mugimendua desaktibatzea. M8 eta M21... lotuta ikusten ditut baita ere.

Dena dela, saretzea benetan gauzatzeko, prest egon behar dugu besteak entzuteko eta euren lekuan jartzeko, haien aldarrikapenak gureekin nahasteko, elkarrekin eraikitzeko. Zer da, ba, egungo Euskal Herria? Toki anitzetako euskal herritarrak ditugu, eta guzti-guztien beharrei erantzun behar die etorkizuneko herriak.

Zentzu horretan, uste dut euskaldunoi kosta egiten zaigula zapaltzaile gisa dugun rola onartzea. Herri zapaldua gara, bai, baina, esate baterako, salatzen dugun arren, ezin dugu gure egoera kokatu palestinarren kontrako genozidioaren parean. Eta, herri zapaldua gara, bai, baina ezin dugu bazter utzi gure iragana eta euskal herritar aunitzek Abi Ayala-n eta bertzelako esparru konkistatu eta kolonizatuetan egin dutena. Edo, feminismora etorrita: emakume arrazializatu aunitz, eta trans emakumeak ere bai, ari dira feminismo zuri hegemonikoa interpelatzen, baina azken horren aldetik ez dago entzuteko borondate handirik.

Niri antiespezista izateak lagundu dit kontzientzia hori hartzen. Gizakiok bertze animalia guztiekiko zapaltzaile garela onartuta, errazagoa zait, adibidez, arrazakeriaren auziaz ari bagara, pertsona zuri gisa daukadan pribilegioez jabetzea. Alegia, zapaltzaile gisa dugun papera onartu behar dugu beste zapalketa horien guztien kontra egin nahi badugu.

Tokian tokikora egokituta eta barrutik lan egitea ere gakoa da. Horretan, Askekintza taldea eredugarria izan zen, mugarria niretzat. Antiespezismoaren eferbeszentzia Europan eta espainiar estatuan itzali zenean, 2010eko hamarkadan, Donostialdeko talde horrek erabaki zuen gauzak beste era batera egitea. Kanpotik zetozen mezu orokorrei heldu ordez, pentsatu zuten: “Goazen gure ingurukoa ikertzera, hemengora egokitutako borrokak eta estrategiak garatzera, eta egin dezagun hori guztia euskaraz”.

> ***Lan handia egin behar dugu gureak diren hitzak berreskuratzeko, berriro ere edukiz betetzeko eta fokua berbideratzeko”***

Gaur egungo testuingurura etorrita, ikaragarria da komunikazioaren teknologiek izan duten eragina. Egia da mezuak zabaltzeko erabilgarriak izan daitezkeela, baina sare sozialen zurrunbilo horretan ere kapitalismoak fagotizatu egiten ditu mugimenduak, hitzak edukiz husten ditu etekina ateratzeko eta, hala, aldarrikapen politiko ziren horiek eslogan apolitiko bilakatzen dira.

Adibidez, guretzat, begano izatea antiespezismoaren ondorio praktikoa da; nire ideologiak bultzatzen nau horretara. Sistemak, aldiz, saldu du beganismoa dieta huts bezala, eta sare sozialak errezeta beganoz bete dira, errezetak bilakatu ditu helburu eta, beste behin, gizaki beganoak kokatu ditu erdigunean, ez gainerako animaliak. Beganismo apolitiko horrek ez du deusetarako balio, ez garamatza inora, hori ez da antiespezismoa, hori ez da Herri Mugimendua. Horregatik, lan handia egin behar dugu gureak diren hitzak berreskuratzeko, berriro ere edukiz betetzeko eta fokua birbideratzeko. Ez diogu tresnarik oparitu behar arerioari.

> ***"Hedabideen agendetan sartzea hagitz garrantzitsua da etorkizunean eraginkor izateko"***

Eskuinak bitarteko gehiago eta botere handiagoa du. Guri sinergiek eman diezagukete indarra. Herri Mugimenduok, nork bere aldarriei uko egin gabe, bertzeen borrokekin bat egiteko gaitasuna behar dugu, eta jendaurrean hala azaldu gainera. Adibidez: Nor, kolektibo antiespezista gisa, hiltegien kontra dago. Baina horrek ez du esan nahi ez denik gai hiltegietan jarduten direnen lan-baldintzak salatzeko, gehienak etorkinak direlako eta modu oso prekarioan aritzen direlako. Antiespezismoak urteak daramatza beste kausa askoren alde lerratzen, eta horrela lortu du beste mugimenduek zilegi jotzea.

Elkar babestuz eta elkarren bozgorailu izanda lor dezakegu, baita ere, hedabideen agendetan sartzea, existitzea, eta hori hagitz garrantzitsua da etorkizunean eraginkor izateko. Eta horrek ez du soilik esan nahi komunikabideek gure borroka zehatzari buruzko edukiak sortzea, baizik eta beste auzi batzuk jorratzen dituztenean ere gure iritzia jasotzea. Horrela, bide batez, sistemaren agendan ere sar gaitezke.

Antiespezismoak, neurri batean, lortu du hori, agendatik kanpo egon den urteetako borrokari esker. Izan ere, garai batean bi, lau, sei... lagun batzen ginen protestetan, inork ez zigun jaramonik egiten, momentuan ez genuen emaitzarik ikusten, baina gaur ez dago animaliak erabiltzen dituen zirkurik Iruñean, eta zezenketarik gabeko Sanferminak ezagutuko ditudala uste dut. Nire erreportajeak zenbati helduko zaizkio? Zalantza hori ere izaten dut... baina idatziko ez banu nire ardurari uko egingo nioke. Itxaropena behar dugu!



Herri Mugimendua(k)

Eraginkorra(k) ote?



NAVARRA.COM - MIGUEL OSÉS

> *Formakuntza-lana da lorpen handiena, iraunkorra delako”*



EL HOUSSINE YAQOUBI OUDKHIS

Sidi Lahcene, Maroko, 1989

Liberatua da LAB sindikatuan eta, nagusiki, langileei beren eskubideen inguruko informazioa eta asesoramendua ematen aritzen da, batez ere bertako hizkuntzak ez dakizkitenentzat. 2018. urtera arte, baina, ez zuen inolako esperientzia militanterik bizi izan. Nafarroako nekazaritza arloko La Huerta de Peralta –gaur egun El Huertico– enpresan ikusi zituen bidegabekeriek eraman zuten, lehenengoz, borrokara. "Lan-ikuskaritzan salaketa jarri genuen lehenik; gero hauteskunde sindikalak egin genituen eta, mehatxu artean, enpresa negoziatzera behartu genuen". Jabeen errepresalia zeharo mendekuzkoa izan zen. "Jazarpenak, zigorrak, espediente diziplinarioak, kaleratzeak... etorri ziren, eta gure erantzuna greba izan zen".

2018ko abenduaren 26an abiatu eta 28 egunez eutsi zioten grebari; tentsio-giroa, baina, sei urtez luzatu zela dio. "Familiarekin egoteari denbora asko lapurtu genion, baina merezi izan du, gaur egun lan-baldintzak askoz hobeak direlako eta, batez ere, langileak euren eskubideen jakitun direlako". Enpresarien arma onena pertsona etorkinen ezjakitansuna eta egoera zaurgarria izan baitziren, bere ustez.

Hainbat greba deialdiren zurrunbiloan sartuta harrapatu du hausnarketarako gonbidapen honek, eta "motibazio handiz" hartu du, ekarpenak egiteko eta besteenak ezagutzeko gogoa du, talde izaera beste inoiz baino beharrezkoagoa dela sentitzen baitu.



> ***Pazientzia eta batasuna behar dira borrokek oso luze jo dezaketelako, baina bat-bateko erantzunak artikulatzeko gaitasuna ere eskatzen dute"***

Niretzat, eta pertsona migratzaileontzat, Herri Mugimenduak babesa eta elkartasuna dira. La Huerta de Peralta enpresarekin bizi izan genituen momentu tirabiratsuenetan, manifestaldietara 3.000 pertsona batzera iritsi ziren Iruñean, eta munduko hamaika txokotatik jaso genituen babesa adierazteko mezuak. Jendearen bultzada hori oso lagungarria da helburuak lortzeko bidean presioa eragiteko, prozesuak bizkortzen ditu eta epeak murrizten dira.

Izan ere, eraginkortasuna helburuak erdiestearekin erlazionatzen dut, lortu arte ez etsitzearekin. Horretarako, neurri handi batean, pazientzia eta batasuna behar dira, borrokek oso luze jo dezaketelako. Baina, era berean, bat-bateko erantzunak artikulatzeko gaitasuna eskatzen du: kaleratze bati greba batekin erantzutea, adibidez. Xede handietaranzko lorpen txikiek, bestalde, jendea erakartzen dute. Guk argi ikusi genuen: lehenengo mobilizazioekin emaitza zehatz zenbait lortzen hasi ginenean, langile gehiagok egin zuten bat.

Nire bizitzako lehenengo esperientzia militantea izan zen La Huerta de Peralta enpresaren aurrean planto egin genueneko hura. Ordura arte ez nuen nire burua antzeko beste ezertan ikusi izan. Langileek jasaten zituzten mespretxuen eta tratu txarren lekuko izateak piztu zigun antolatzeko eta erantzuteko grina. Geroago, LAB sindikatuaren bitartez jakin genuen zein diren langileoi dagozkigun eskubideak eta konbenioan jasotako baldintzak, eta ez zirela betetzen: ez ziguten zegokiguna ordaintzen antzinatasunagatik edota zenbait kategoria bereziturengatik; ezta gaueko orduak nahiz ordu extrak behar bezainbeste ordaindu ere, kontratu gehien-gehienak aldizkakoak ziren... Orduan ulertu genuen plantillaren gehiengoa pertsona etorkinak ziren enpresa hartako jabeak gure ezjakintasunaz aprobetxatzen zirela mota guztietako gehiegikeriatarako, baita mehatxatzeko eta beldurra zabaltzeko ere.

Horregatik, esperientzia osotik bereziki baloratzen dut langileen jabekuntzarako eta ahalduntzerako egin genuen formakuntza-lana, lorpen iraunkorra izan delako: gaurko langileek badakitelako zein diren euren eskubideak, eta iristen diren berriei azalduko dizkietelako; badakitelako konbenio-urraketa baten aurrean nola jokatu behar duten edo nola defendatu behar dituzten euren interesak; badakite ezer sinatu aurretik azalpena arabieraz ere eskatu behar dutela... Hori dena da sei urteko borroka haren alde eraginkorrena: ni eta mobilizazio haiek abiatu zituzten beste zenbait kide jada han ez gauden arren, iraungo duena.

> ***Elkarrenganako mesfidantza sortuz saiatu ziren gure borroka itzaltzen; guk, ordea, asko zaindu genuen gure arteko konfiantza"***

Azken urteotan hobekuntzak egon dira eta gaur egun, Euskal Herrian, nekazaritza eta abeltzaintza sektorean behintzat, konbenioak beste leku batzuetan baino hobeak dira; Murtziako edo Almeriako negutegietan diharduten langileenak baino hobeak, esate baterako. Feminismoari esker, berdintasun handiagoa dago hemengo plantilletan espainiar estatuko beste erkidego batzuetan baino. Euskal Herrian klase-kontzientzia sendoa dago, Herri Mugimenduen inguruko kultura handia ere bai, eta hortik datoz lorpen gehienak.

Hala ere, militanteak falta dira, mugimendu horiek guztiak artikulatu eta sustengatuko dituzten pertsona gehiago behar dira. Inplikazio falta hori indibidualismoarekin lotzen dut, jende askok bere buruari beste ezeri ez diolako begiratzen. Eta horrek beti jokatuko du klase apalen kontra. Gure esperientziatik esan dezaket elkarrenganako mesfidantza sortuz saiatu zirela gu zatikatzen eta gure borroka itzaltzen. Guk, ordea, asko zaindu genuen gure arteko konfiantza. Lanpostu egonkorrenetan jarduten genuenok hasi ginen mugitzen; diskrezio handiz, tentuz, gauzak ondo egiten, bagenekielako 200 familia baino gehiagoren ongizatea zegoela jokoan. Eta borrokak aurrera egin ahala denok sinetsi genuen guztiok izango ginela protagonista. Langileok marraztu genuen gure bidea, ez patronalak.

Sare sozialetan eta hedabideetan zailagoa da beharbada, politika eta enpresa arloko botereek presentzia handia dutelako. Teknologia aurrera doa eta hori ez da txarra bere horretan. Garrantzitsuena, baina, gizarte aldea da: jendartearen balioak eta helburuak ongi finkatzea, eta horien mesedetan baliatzea bitartekoak. Norabidea, niretzat behintzat, pertsonen ongizateak markatzen du beti, jendearen bizi-baldintzak hobetzeak, injustiziekin akabatzeak.



Aurrera begira, Herri Mugimenduen eraginkortasuna hobetzeko, talde izaera hori indartzea izango da garrantzitsua: bat egitea, trinko, norbanakoaren ikuspegitik ikuspegi kolektibora salto egitea. Eta horretarako tresnarik onena formakuntza da: ikastaroak, mintegiak, ezagutza partekatzeko espazioak sortzea.

Azkenik, pertsona migratzaileekin aritzen naizenez gero, esango dut oraindik ere zailtasun handiak ditugula dokumentazioak berritzeko, osasun-sisteman hitzorduak hartzeko eta, oro har, pertsona etorkin askok oraindik ez dutela benetako onespenik sumatzen. Herri Mugimenduetatik ere lan handiagoa egin beharko da norabide horretan, hau guztia ikusarazteko eta buelta emateko.

Herri Mugimendua(k)

Eraginkorra(k) ote?



> *Tentsiorik gabeko testuinguru berri honetan, are zailagoa da jendea militantziara erakartzea, errepresioa izan baita horretarako faktore garrantzitsua”*



EÑAUT ELOSEGI ONANDIA

Baiona, 1967

Borrokarako grina "barru-barruan" eta "betebehar bezala" sentitzen duela dio. Oso gazterik hasi zen Euskaldun Gazteria mugimenduan eta hura izan zen bere lehendabiziko "militantzia eskola". Ikasle mugimendura engaiatu zen aitzinerago, "batez ere gizarte gatazken bueltan", eta handik, Patxa gazte mugimenduaren ingurunetik, Euskal Preso Politikoen aldeko ekimenetara ere iritsi zen.

Paraleloan, euskalgintzan jardun izan du beti eta, zehazki, urte luzez aritu izan zen Udaleku Elkartetik umeentzako euskarazko aisialdia bermatzen: "Animatzaile zarelarik, hezkuntza proiektu bat eta balore jakin batzuk defendatzen dituzu, hori ere bada militantzia". Seaskan nahastuta ere badaramatza zenbait urte eta berriki Azterketak Euskaraz mugimenduan ibili da buru-belarri.

Gaur egun, Arberoa eskualdean bizi da eta, herriko Kultur Elkartean ez ezik, Lurra eta Etxebizitza kolektiboan dabil espekulazioaren aurka borrokan. Hain justu, Hazparneko higiezinen agentzia bat okupatzeagatik atxilotu eta epaitu dute 58 urterekin. "Pentsatu baino gehiago egin egiten duen militante" gisa ikusten du bere burua, eta horregatik harritu du bere hitzak orriotan jaso nahi izateak. Esker onez heldu die galderei.



> ***Abiatzen ez dugun borroka oro galtzen dugu eta, alderantziz ere, egiten dugun borroka orok uzten du nolabaiteko aztarna, nahiz eta ez irabazi”***

Dagokion eskualdean egoera aldatzeko eta hobetzeko gogoz antolatzen den jende arruntak osatzen ditu Herri Mugimenduak. Izan daitezke tokikoak ala eremu zabalago batean eragin dezakete, modu autonomoan aritu daitezke, badute estrategia bat, baita koordinazioa ere. Askotarikoak izan daitezke, beraz, baina den-denek dituzte bi ezaugarri: kalean aritzen direla, eta jende arruntarekin, haientzat eta/edo haiek interpelatuz jarduten dutela.

Ez dut argi zein irizpideren arabera baloratzen ahal dugun Herri Mugimenduen eraginkortasuna eta, zehazki, eraginkortasun politikoa. Ez du zerikusirik garaipenarekin, bederen. Izan ere, abiatzen ez dugun borroka oro galtzen dugu eta, alderantziz ere, egiten dugun borroka orok uzten du nolabaiteko aztarna, nahiz eta ez irabazi. Arberoa Lurra eta Etxebizitza kolektiboko kideok Hazparneko agentzia hura okupatu genuelako epaitu gintuzten, bai, baina gogoeta sorrarazi dugu jendartean, argudio sorta bat ekarri dugu eta, beraz, kriminalizazioaren gainetik, beti izango gara maila horretan eraginkor; horregatik borrokatu behar dugu.

Adibide ona iruditzen zait, baita ere, Azterketak Euskaraz mugimendua. Alde batetik, balio izan du helburu deklaratu bat erdiesteko: Brevet-a euskaraz egitea. Etekin hori, beharbada, ez da nahikoa, baina, batez ere, tematu gara eta ikaragarrizko lana egin dugu ikasleekin, irakasleekin, gurasoekin eta gizartearekin. Beste hori ez zen helburu deklaratua, baina biziki lorpen handia izan da: sentsibilizazioa, ilusioa, antolaketa, banderolak egitea, hausnartzea, oharrak idaztea... dena. Ipar Euskal Herrian jarraituz, Bizi! mugimenduak, Eusko monetak eta Alda elkarteak, kasu, eraginkortasun politikoa dute helburu: pertsonak formatzen dituzte, oso ongi komunikatzen dute eta gai dira jende anitz hunkitzeko eta mobilizatzeko.

Dena dela, jende kopurua ez da eraginkortasuna neurtzeko irizpide behinena. ‘Euskal Presoak Euskal Herrira’ borrokak, esaterako, hamarkadetan egin du aitzinera; zenbait lekutan ostiraleroko elkarretaratzeetan hiru lagun besterik ez ginen batzen... baina, agian, hiru lagun horiek gabe, mugimendua eta, ondorioz, bere aldarria hilda leudeke. Arberoan ere talde ttipia gara, baina kristoren anabasa eragiten dugu. Batzuetan, lur eremu bat saldu ordez Herriko Etxeak etxebizitza sozialetara bideratzea lortzen dugunean adibidez, helburu materialak betetzen ditugu. Beste askotan, ez dugu modurik gure mobilizazioen eragina neurtzeko, baina beti zerbait irabazten dugula sinetsita nago.

> ***Maila emozionalean grina eta gogoa apaldu zaizkigu, jada ez dugu lehengo pertzepzio bera borrokarekiko, nik jada ez dut lehen bezala dar-dar egiten lagunartean zenbait kanta abesten ditugunean”***

2009an ziklo politikoaren aldaketa abiatu zenetik, intentsitatea nabarmen jaitsi da borroka- eta errepresio-giroari dagokionez, esparru instituzionalean onarpena eta presentzia irabazi dugu, eta maila emozionalean grina eta gogoa apaldu zaizkigu. Jada ez dugu lehengo pertzepzio bera borrokarekiko, nik jada ez dut

lehen bezala dar-dar egiten lagunartean zenbait kanta abesten ditugunean. Esaten genuen ez dugula emozioekin borrokatu behar, baizik eta buruarekin, baina bistan da sentimenduek asko mugitzen dutela. Buruarekin emoziona gaitezen, beraz.

Tentsiorik gabeko testuinguru berri honetan, are zailagoa da jendea militantziara erakartzea, errepresioa izan baita horretarako faktore garrantzitsua. Bestela, militantzia beti izan da gutxiengoaren gauza bat, gehiengoaren begietan gaizki ikusia gainera: lezio-emailea delako, goitik mintzo delako, besteak kritikatzen ditu baina kontraesanak dauzka, mundu itxia da...

Orain, errepresiorik eta hunkidurarik gabe, beste nonbaitetik erakarri beharko dugu. Eta beste hori zer den ulertzen kanpotik etorritako jendeak laguntzen ahal digu. Frantziatik gazte asko ari dira lekualdatzen Arberoa ingurura bizitzera. Ez dira abertzaleak, baina euskararekin eta euskaldunen eskubideekin ez dute arazorik, eta ezkerreko jendea dira, ideia ekologistak dituzte. Tokiko merkatuaren eta laborantzaren inguruan biltzen dira, eta hori ere bada engaiamendua.

Hala ere, nik neronek ez dakit zein den militantzia eredu berria, ni zahartzen ari naiz, ez nabil sare sozialetan eta ez ditut ulertzen, deskonektatuta sentitzen naiz. Lehengo manerak erabiltzen ditut komunikatzeko. Herri ttipietan ez da afixak kolatzeko tokirik, baina banderolak ezarriz plastiko aunitz erabiltzen dugu eta, beraz, paretak berreskuratzeko beharra ukan dugu, gogoeta egin dugu, eta modu txukunean eskatu diogu auzapezari.

Sortuko kidea naiz hilerokoa ordaintzen dudalako baina, gainerakoan, zer inplikatzen du Sortuko militante izateak gaur egun? Aiherra Bizirik deitzen den beste batean ere banabil, ingurumenaren arloan, 5G-aren kontra adibidez, egiten dugu lan. Guztiak dira talde ttipiak, printzipioz Ezker Abertzalearen aldarrikapenekin bat egiten dute, baina arrunt deslotuak gara, baita maila organikoan ere.

> ***“Energia badugu, hori da gure indargunea eta kanpotik etorri den jendea harrituta uzten duena: zenbat gauza eta zeinen desberdinak antolatzeko eta burutzeko gai garen”***

Beharbada, hain justu, zatiketa hori da gaur egun Herri Mugimenduek duten korapilo nagusia. Hori eta ezkerraren baitako desadostasunak: Ezker Abertzalearen eta Mugimendu Sozialistaren artean, alderdi beraren baitan ere kritikak daude, mugimendu ezberdinen artean, batzuk bagoaz besteen bileretara baina haiek ez dira etortzen... akitua naiz horrelako gauzekin, energia asko xahutzen dugu ustez lagunak diren horien kontra!

Izan ere, energia badugu, hori da gure indargunea eta kanpotik etorri den jendea harrituta uzten duena: zenbat gauza eta zeinen desberdinak antolatzeko eta burutzeko gai garen. Tokiko ekoizleen azokak egiten ditugu, lokalak okupatzen ditugu, kultur ekintzak antolatzen ditugu, ekimen euskaltzaleak, heldu nahiz umeentzako eskaintzak...

Etorkizunari begira guztion arteko batasuna sentitu nahiko nuke. Garaian Ezker Abertzaleak egiten zuen halako zerbait, sentitzen genuen bazela helburu nagusiago bat gainean, eta horren baitan izan zintezke militante euskalgintzan, edo sindikalismoan, elkarte munduan... Nik argi dut ttipitik eragiteko gogoak mugitzen nauela, hurbileko borroketan erosoago sentitzen naiz, egiten duguna nire begiekin ikusten dudalako. Baina, aldi berean, gustatzen zait nabaritzea badabilela jende gehiago inguruan. Alegia, hiperkoherente izateagatik bakarrik geratzea ez da eraginkorra.

Herri Mugimendua(k)



“Guztiok batera erantzuteko, guztiok zeharkatzen gaituzten hariak identifikatu behar ditugu”



IZAR MENDIGUREN COSGAYA

Laudio, 1988

Identitatea, neurri handi batean, "herriak edo herriek eta mugimenduek" eman diotela uste du. Amestu behar dugula eta utopia horiek eraikitzeko bideak ireki behar ditugula transmititu zioten etxean, baita jaramon egin ere! Auzolanari eta herrigintzari emana bizi da, horrek ekartzen diolako "mundua ulertzeko eta bertan egoteko modu bat". Ikasle zela Ikasle Mugimenduan murgilduta ibili zen, gero Gazte Mugimenduetan eta baita Euskal Udalekuetan ere. Mugimendu Feministaren eskutik ari da bere burua deseraikitzen eta berriro eraikitzen; eta, besteak beste, kantugintzaren edo bertsolaritzaren bitartez egiten dio ekarpena euskararen transmisioari. Kulturgintzan "plazeretik eta jolasetik" omen dihardu, "horrela egiten denean gozagarriagoa delako denentzat".

2009an sortu zenetik gaur arte, Aiaraldea Ekintzen Faktoria izeneko proiektuan parte hartzen dabil. Euskara eskualdearen erdigunean kokatzera zetorren komunikabide gisa jaio zen hark askoz ere eremu zabalagoan eragiten du gaur egun eta, hala, biziberritzerako esparru gehiago eman dizkio hizkuntzari: feminismoa, hezkuntza, kultur sorkuntza, elikadura burujabetza eta ekonomia sozial eraldatzailea, besteren arten.

"Bizi dugun garaian ezin dugu Euskal Herri berri bat eraiki molde zaharrekin", dio. Irekidurarako beharraz eta aniztasunaren onurez konbentzituta dator solasaldira.



“Eraginkortasuna unean uneko eta tokian tokiko gisa ulertu behar dugu”

Herriak eta mugimenduak bizitzeko adina modu dago Herri Mugimenduak ulertzeko. Hala ere, burura datorkidan lehenengo hitza ‘ispilua’ da, ingurune jakin bateko errealitatea islatzen dutelako bertako Herri Mugimenduek. Alegia, mugimendua dagoen tokian bizitza dago. Aldiz, mugimendurik ez egoteak adierazten du subjektuak, kolektiboak ez daudela kohesionatuta, ez dietela euren beharrei begiratzen ezta erantzuten ere. Zentzu horretan, beraz, komunitate baten saretze mailaren termometro ona izaten dira. Anitzak dira, edo beharko lukete, ametsak ezin ditugulako bakarka bete, beti izango dugulako besteen beharra, eta horrek inplikatzen duelako bidelagunei begiratzea, entzutea.

Eraginkortasuna, bestalde, tokian tokiko errealitateei erantzutetik dator. Hau da, behar komunitario zehatzetatik eta horien alde eragiteko jaiotzen dira Herri Mugimenduak eta, horrenbestez, testuinguru horietarako balio dute. Batzuen eta besteen esperientziak inspiratzaileak izan daitezke. Besteengandik ikas dezakegu, eta gu beste mugimendu batzuentzat eredugarri izan gaitezke... edo ez. Gerta baitaiteke, noski, eremu eta garai jakin batean eraldatzailea izan den erantzunak ez funtzionatzea beste batzuentzat edo beste toki batean. Eraginkortasuna, ondorioz, unean uneko eta tokian tokiko gisa ulertu behar dugu.

Helburuen araberako neurketak egitea zaila da. Soilik prozesu zeharo transformatzaileak eta anbizio handiko asmoak hartuko ditugu aintzat? Ala pauso txikiak ere bai? Esate baterako, Euskal Herrirako berezko Curriculuma nahi izanda, eskola txiki batean guraso edo irakasle talde batek sortutako liburuxkak balio erantsia eduki dezake ezin hobeto erantzungo diolako eskola horretako beharrei.

Nazio mailako estrategiak behar ditugu, eta instituzioetan egotea lagungarria da pauso handi eta sendoagoak emateko. Alabaina, urrats txikiak egikaritzea errazagoa denez, horien ikusgarritasuna eta aitortza bilatzea estrategikoa izan daiteke, baliagarriak baitira egiten ari garen horren inpaktua bistaratzeko, sentitzeko eta balioan jartzeko.

Hori oso garrantzitsua da: ulertzea aldaketa posible dela, lor daitekeela. Aiaraldean euskara hutseko komunikazio proiektu bat sortu genuen ingurugiro zeharo erdaldun batean. Aiaraldea komunikabidearekin, Aiarako kuadrillako –Araba– bost herri eta Bizkaiko lau herri konektatu genituen; eta, lan komunitarioari esker, euskara erdigunera ekartzea lortu genuen, eta hegemoniko bihurtzea. Ez da bide erraza izan, baina behinola eskualde geografiko-soziala zen hura eskualde politiko bilakatu dugu. Amets txiki batetik abiatuta eraldaketa handia etorri da, horretarako baldintzak sortu eta zaindu ditugulako. Giltza saretzea izan da, eta testuingurua ere bai: gurea oso eremu industrializatua da, lan-gatazka eta greba asko bizi izan ditugu; hein batean, lan-eremutik eraikitako dinamikei esker artikulatu da eta aktibatu da eskualdea.

Tokiko ekimen batetik naziora eramanda adibide antzekoa: Errigora. Ekimen horrek ere oso ongi asmatu du, Nafarroan, testuinguru jakin batean, euskarari bultzada eman diolako tokiko ekoizleak auzolanean saretuz. Elikadura oinarri-oinarrizko zerbait da denontzat. Eta horixe da gakoa: guztiok batera erantzuteko, guztiok zeharkatzen gaituzten hariak identifikatu behar ditugu.

“Qurekin bidea egiteko prest dagoen jendeak ez du pausoa eman guk ez diogulako eskua luzatu”

Aro digitalak aldaketak ekarri ditu, dudarik gabe. Euskal Herrian askotariko mugimenduak ditugu, baina, zenbait

aisialdi-eragile salbu, ez daude lehen bezain saretuta. Pandemiaz geroztik bereziki, modu oso indibidualean bizi gara eta, Gazte Mugimenduak lan handia egin duen arren, kaleak jada ez daude lehen bezain bizi.

Lehen ez zegoenez plaza digitalik elkarren berri edukitzeko, topaketa gehiago antolatzen genituen: tailerrak, saio monografiko gehiago... Horietan tresnak partekatzen genituen eta gauzak kuestionatzen jarduten ginen, norabideak berrikusten. Orain, ordea, ez dugu hainbesteko arretarik jartzen alboko eskualdean egiten duten horretan eta aste tartez nekez ateratzen dugu egun erdi ondoko herrian antolatu duten mintegira joateko. Soilik kolpe handiek lortzen dute nazio-begirada berpiztea, Baxoa Euskaraz egiteko borrokak, kasu. Gainerakoan, kostata gertatzen da lehengo esperientzia-truke hura.

Garai berriak dira: mundua aldatuz doa, mugimendua da gure egoera naturala edo berezkoa eta, ez badugu hori onartu nahi, gu geu gara arazoa. Alda ditzagun, beraz, praktikak eta estrategiak ere eta, lan horretan, has gaitezen gure burua eta gure helburuak berrikustetik. Nor gara? Nolako subjektua gara? Zer, nor eta nolakoak izan nahi dugu?

Inklusioaren afera, adibidez, lehentasunezkoa da. Eskualde eta herri askeak nahi ditugula diogu, anitzak... Baina zer egiten dugu horretarako baldintzak bermatzeko? Beste kulturak, beste hizkuntzak, pertsona arrazializatuak, genero disidentziak... Beste horiek ahaldundu daitezen, guk deseraiki behar dugu gure burua; bestela, begirada oso itxiarekin eta burbuila batetik gabiltza eragin nahian. Aintzat har dezagun inguru osoa, ikas dezagun elkarrengandik eta bila ditzagun arazo komunei erantzuteko bestelako moduak.

Orain arteko militatzeko, antolatzeko eta ardurak banatzeko moduek jende asko sentiarazi dute kanpoan. Esate baterako, balio feministak dituen pertsona batek martxoaren 8aren bueltako ekimenen antolaketa-asanbladan parte hartu nahi izatea baina ez hurbiltzea ez duelako taldearen aitortzarik sentitzen... horrek zer pentsatua eman beharko liguke! Ez dugu asmatu irekitasuna transmititzen: nukleo itxi gisa ikusi gaituzte, eta gurekin bidea egiteko prest dagoen jende horrek ez du pausoa eman guk ez diogulako eskua luzatu.

Horrekin lotuta, gainera, Herri Mugimenduen baitan ere egitura bertikalak egon dira, izutzeko moduko botere-harremanak sortu dira, zapalkuntzak onartu eta aitortu ditugu, eta kasu askotan pertsona gutxi batzuengan metatu da jakintza, erreferentzialtasuna eta boterea. Pertsonifikazio horrek eta funtzionamendu horrek transmisioa eta zabalpena eten ditu, hurrenez hurren.

> ***Batzuk deseroso egoten ikasten badugu, beste asko erosoago eta askeago sentituko dira"***

Zorionez bagabiltza subjektu berriak sortzen, baina oraindik ere berehalako erronka da egiturak irekitzea eta horizontal, garden nahiz gertuko bilakatzea. Batzuk deseroso egoten ikasten badugu, beste pertsona asko erosoago eta askeago sentituko dira Herri Mugimenduen espazioetan. Derrigor egin behar dugun trantsizioa da, baldin eta gaurko eta biharko Euskal Herria denona izatea nahi badugu.

Belaunaldi berriek gauza asko irauliko dituzte eta gai izango dira Herri Mugimenduetan aritzeko modu bizigarriagoak planteatzeko. Izan ere, lehengo manerek, 24 orduko militantzia bukle horrek, kalte egin dio herri honi, eta aukera polita dago datozen urteetan aspektu hori zaintzeko, gure behar eta ahalmenekin bateragarriak izango diren erritmo jasangarriagoak ezartzeko.

Azkenik, badugu beste zailtasun bat begi aurrean: plaza eta harreman fisikoak berreskuratzea, harreman digitalekin eta adimen artifizialarekin egoki uztartuz. Kode berriak behar ditugu nork bere eraikuntzarako eta komunitatearen eraikuntzarako. Pertsonak eta bizitzak aldatuko dira, espazioak aldatuko dira; zenbat eta tanta gehiago eta ahalik eta anitzenak jarri mugimenduan, orduan eta errazagoa izango da olatuak egitea.


Herritarren
HITZA
errespetatu


AROZTEGIA
GELDITU !
Herritarren
HITZA
errespetatu
AROZTEGIA
GELDITU !
AROZTEGIA
GELDITU !
Herritarren
HITZA
errespetatu

Herri Mugimendua(k)

Eraginkorra(k) ote?



ARGIA

> *Desobedientzia, konfrontazioa eta erresistentzia dira Herri Mugimenduen borroka moldea”*



JOSEBA ALVAREZ FORCADA

Donostia, 1959

Errefuxiatuen semea izan zen, familia Bruselan erbesteratu baitzen. Bertan ez sustraitzeko asmoz, gurasoek bera eta anaia bikia aiton-amonekin bizitzera bidali zituzten Donostiara, 9 urte zituztenetik 15 bete arte. 1974an familia berriz batu zen, Hendaian. Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* hizkuntzalari zein politikaria eta Jone Forkada Adarraga andereño aitzindaria zituenez guraso, etxetik jaso zuen euskararekiko konpromisoa.

Oso gazterik, Hendaian Akelarre Kultur Elkartea sortu zuen hainbat kiderekin batera. Militantzia politikora, ordea, Herri Taldeak (HT) izeneko erakundearen bitartez jo zuen: "Iparretarrak (IK) orbitako eragile sozio-politiko bat zen. Gerora, Euskal Mugimendu Abertzalea (EMA) bilakatu zen. EMAren bihotza izan zen HT, nolabait". Nerabezaroan, AEKren bitartez, Lesakako Laminaciones enpresako langileei euskara eskolak ematen hasi zen.

1976an itzuli zen Donostiara, "guretzat Hegoaldea beste mundu bat zen plano guztietan", dio. *Argia* astekarian jarduteaz aparte, *Euskal Telebista*ren aldeko kanpaina bultzatu zuen, besteak beste. Euskal Herrian Euskaraz mugimenduaren sorreran parte hartu zuen 1977an eta lehen liberatua izan zen. Euskal Eskola Publikoaren aldarrikapenean ere murgildu zen eta gaurko Kontseiluaren ernamuina izan zen Euskal Kulturaren Batzarra (EKB) izeneko eragile taldean aritu zen.

1987tik 1998ra bitarte Herri Batasunaren zinegotzi izan zen Donostiako Udalean. Urtebete geroago espetxeratu zuten Mahai Nazionaleko kide izateagatik eta, ateratakoan, 2001-2005 bitarte, itzuli zen politikagintzara Euskal Herritarrok alderdiaren legebiltzarkide gisa. 2007an berriro kartzelaratu zuten Batasuna-ko Mahai Nazionaleko kide izatea leporatuta, 2009ra arte. Hainbat atxiloketatan eta isolamendu-alditan torturak jasan zituen.



“Batzuek uste dute erreformismoa iraultzaren bidean dagoen erdibideko geraleku bat dela, baina ez da egia: bi bide zeharo ezberdin dira”

Autogestioan oinarritzen diren dinamika sozial gisa ulertzen ditut Herri Mugimenduak. Erabateko autonomia dute eta ez dira beste inoren transmisio-uhala. Eraginkor izateko, Herri Mugimenduek egoerak aldatzeko gai izan behar dute, eta horretarako bi modu dituzte: zuzenean aldaketa hori gauzatzea herri boterea dela medio, ala aldaketa kausatu arte egoera baldintzatzea. Edonola ere, ezinbestekoa da helburuak argi edukitzea. Agian ez ditugu erdietsiko nahi genuen moduan eta abiaduran, baina zein helburu politikoren bila goazen argi eduki behar dugu. Eta baliteke azken helburua, behinena, gu geu izatea, alegia, herri antolatua, hori baita lortu nahi dugun jendarte eredua.

Beste klabe bat lanerako moldea da. Herri Mugimenduen kasuan, desobedientzia, konfrontazioa eta erresistentzia dira bitarteko nagusiak. Bistakoa da borroka instituzionalak, berez, ez garamatzala inora. Ezinezkoa da gaurko markoa errespetuz gainditzea, mugak onartuz eta aldarrikapen zein eraldaketa puntual eta minimoak jarriz. Herri Mugimenduek ezin dute izan instituzioen zerbitzura dauden palankak. Batzuek uste dute erreformismoa iraultzaren bidean dagoen erdibideko geraleku bat dela, baina ez da egia, bi bide dira, zeharo ezberdinak elkarren artean.

Iraganean, gu –Ezker Abertzalea– Herri Mugimenduaren ordezkari eta osagarri ginen. Borroka instituzionalerako gure zerrendetan Herri Mugimenduetako kideak joaten ziren, hala nola, langileak, feministak, euskalgintzako jendea, presoak eta preso ohiak, militante ekologistak... Herri Mugimenduek beraiek markatzen zuten zein zen eragiteko unea eta zein norabidetan. Instituzioak kale dinamikaren erresonantziarako tresna eta kale dinamika bultzatzeko bitarteko gisa erabiltzen genituen nagusiki.

Garai hartako adibide asko daude, tartean, Euskal Herrian Euskaraz mugimendua. Bere lanari eta ekarpen ideologiko handiari esker, hizkuntza-borrokaren planteamendu politikoa jarri zuen erdigunean. Horrek, besteak beste, Ezker Abertzalearen jardunean izan zuen oihartzuna: bere hizkuntza politika finkatu eta euskara lanerako hizkuntza nagusia bihurtu zuen. Bestalde, lehenengo *Argia*-n eta gero *Egin*-en, hedabideetan kazetari jardun nintzen garaia ere gogoan dut, Herri Mugimenduaren eskutik euskal prentsaren alde egindako borroka emankorra izan baitzen. Horren emaitza izan zen, besteak beste, *Euskaldunon Egunkaria*-ren sorrera eta baita orduan euskara hutsez funtzionatu zuen *ETB*ren sorrera ere.

Gaurko egunera etorrita, Ipar Euskal Herriko herrigintza goraipatzekoa iruditzen zait, azken hamarkadetan berpizkunde ikaragarria egon da askotariko eremuetan: nekazaritzaren arloan, hizkuntzari dagokionez, lurraren jabetzaren inguruan, turismoaren aurkako borrokan... herri dinamika izugarria dago. Hego Euskal Herrian baino mugimendu handiagoa dago, azkarrago dabil eta sinergia interesgarriak sortu dira. Eta hori ere ezin da ulertu Herri Mugimenduaren dinamikaren garrantzia kontuan izan gabe, dinamika instituzionala oso mugatua izan baita beti bertan.

“Oinarri sozialik gabe, herria aktibatu gabe, erakundeetatik ezin duzu eraldaketarako ezer eraiki”

Hain justu freskotasun eta indar hori falta zaigu guri ziklo berri honetan Hego Euskal Herrian. Herri Mugimenduak eta dinamikak inoiz baino sakabanatuago eta ahulago daude, eta horrek zerikusi zuzena du paradigma berri honetan Ezker Abertzaleak instituzioak erdian jarri izanarekin. Eusko Alderdi Jeltzaleak baino bozka bat gehiago

lortzea obsesio bilakatu da, borroka elektorala da orain ardatza. Instituzioetan oinarri sendorik ez duten akordio politikoen etengabeko aldarrikapena nagusitu da euskal jendartean. Garai bateko Ezker Abertzalearen jarduerarен printzipio nagusiak hankaz gora jarri dituzte mundua aldatu dela esanez, eta herrigintza behar instituzionalaren araberako euskarri subsidiarioa bihurtu nahi izan dute. Baina instituzioetan eserlekuak edukitzea alperrik da herritarrak aktibatuta ez badauzkazu, oinarri sozial hori gabe erakundeetatik eta egungo marko juridikotik ezin duzulako ezer benetan eraldatzailea eraiki.

Arazoa, beraz, ez da instituzioetan egotea, baizik eta zein ikuspuntutatik zauden eta nola aritzen zaren bertan. Gaur egun instituzioetan ez dago proiektu politikoen arteko benetako talkarik; agian kalean Herri Mugimendua oso ahul, neutralizatuta eta askotan subordinatuta dagoelako izango da. Eta dinamika instituzional berri honek baditu ondorioak: egun ordezkari publiko gisa aritzeko garrantzitsuagoa da unibertsitateko ikasketak izatea, herri dinamika batean murgilduta egotea baino... Ordezkari politikoen kalitatea estandar burgesen arabera neurtzen da. Ezker Abertzaleak, maila diskurtsiboan, jatorrizko helburuei eusten die, independentzia eta sozialismoa, baina bere praktika politikoa beste bide batetik doa, bai edukietan eta baita formetan ere. Politikagintza konbentzionala nagusitu da maila guztietan Hego Euskal Herrian. Tarteka bai, arlo instituzionalari eta bertako agenda politiko-instituzionalari komeni zaion uneetan, manifestaldi edo ekitaldiren bat aurrera ateratzen da. Herrigintzak egiten duen lanaz eta herritarren sentimenduez eta jatorrizko helburu horiekiko atxikipenaz baliatzen dira sostengua lortzeko. Baina hori ez da herrigintza bultzatzea.

> ***“Garrantzitsua da militanteak gogoetan heztea, pentsatzeko prestatzea eta ez bihurtzea transmisiorako tresna hutsa”***

Pentsatzen genuen Franco hiltzearekin batera independentziarako bidean sartuko ginela, horretarako zilegitasun osoa genuelako, baina ez zen hori gertatu. Koordinadora Abertzale Sozialista (KAS) alternatiba eta negoziazio politikoa planteatu genituen, baina ez genuen helburua erdietsi, bidean asko utzita ere. Geroago, borroka armatua desagertu zen eta paradigma berri honetan sartu gara. Eta, etorkizunean zer? Bada, herrigintzak egin beharko du dagokion lana markoa iraultzeko eta hurrengo paradigma gautzatzeko edota baldintzatzeko... bestela, jai dugu!

Horregatik, garrantzitsua da militanteak gogoetan heztea, pentsatzeko prestatzea eta ez bihurtzea transmisiorako tresna hutsa. Iritzi zein pentsamendu kritikorik gabeko eta autokritikarako gaitasunik gabeko militantzia ez dugu behar. Planteamenduak zalantzan jarri eta ezetz esateaz gain, alternatibak irudikatzeko gai den militantzia burujabea behar dugu.

Plano kolektiboan, ikuspegi global eta estrategikoa berreskuratu behar dugu, baina inork bidea markatu zain egon gabe, guk geuk bilatu eta eraiki behar ditugu indar-konfluentziak. 2025eko udan Hernanin, Sanjuan jaien testuinguruan eta eraso xenofoboen aurrean gertatu zena edota Baionan frantses estatuaren errepresioaren aurka eginiko azken mobilizazioa eredu onak iruditzen zaizkit. Hernanin Magrebtarren aurkako jazarpena salatzeko batu ginen denok, Udala ez ezik, Amher Elkartea eta Txozna Batzordeko talde guztiak, Bilgune Feminista edota Gazte Koordinadora Sozialista barne. Baionan gauza bera gertatu da Herri Mugimenduen aurkako errepresioa salatzeko. Bi kasuetan, eragileak, euren arteko diferentziak alde batera utzita, elkarrekin atera ginen salatzera. Sektarismoarekin hautsi eta ekintza batasuna gailendu zen; ezin baitugu jardun beti eta soilik osoki gure parametroen barruan. Kapitalaren aurrean eta gutxieneko printzipio batzuen alde elkarrekin eragin dezakegu, nahiz eta beste zenbait auzitan beharbada nork bere diskurtsoak mantendu. Alegia, hori ere bada Herri Mugimenduen autonomia zaintzea. Hori da euskal espazio antikapitalista artikulatzeko bidea.

Eraginkorra(k) ote?

Herri Mugimendua(k)



MANEL ARMENGOL

> *Herri Mugimenduek ezin dute ildo politikoei jarraiki jardun eta ezin dira ideologia bakar batekin lerrokatu"*



LUIS FUENTES PEREZ

Villarramiel de Campos, 1952

14 urte zituelarik hasi zen lanean Medina de Rioseco-ko (Valladolid) galdategi batean. Artean ez zekien ezer klase-borrokari buruz eta Frankismo garaiko sindikatu bertikalak besterik ez zegoen lantegietan. 17 urterekin iritsi zen Bizkaira, eta benetako militantziari 25 urte zituenean ekin zion. Partido del Trabajo-ko (PT) jendearekin egin zuen kontaktua lehenik, eta Confederación de Sindicatos Unitarios de Trabajadores (CSUT) sindikatuaren sorreran kolaboratu zuen.

Geroago, Moncloako Paktuak sinatu eta enpresa-komiteak sortzearekin batera, egoera berriaren aurrean zuen jarrera kritikoak eraman zuen Cofederación Nacional del Trabajo (CNT) sindikatura. Eta horixe izan zen aurrerago ere, urte luzeetan, bere borroka esparrua: "Militantzia anarkistaren esferan aritu izan naiz beti". Besteak beste, Bizkaiko Metalaren lehenengo hitzarmenerako negoziazio-mahaian aritu zen, CNTren hainbat kongresutan ere bai, eta 2000. urtean idazkari nagusia izan zen.

Bere aburuz, Mugimendu Anarkista da Lehenengo Internazionaletik gaur egunera arte eraginkortasun eta koherentzia handiena erakutsi duen eragilea. "Baina ni ez naiz anarkista, ni CNTko militante bat naiz; anarkista bizitza da, eguneroko jarduna alegia". Bilboko Konpartsek eta, berrikiago, memoria historikoaren aldeko ekimenek ere badute pisua bere bizitza-historian. Militantziaren beheraldiarengatik kezkatuta baina lekukoa gazteei emateko uste osoarekin hasi da hizketan.



> ***Eraginkortasuna helburu zehatzak lortzearekin lotzen dut”***

Mugimenduak benetan herritarrak dira baldin eta pluralak badira, askotariko filosofiatako kideen eta askotariko estrategien bilgune badira, eta baldin eta horiek guztiak behar eta helburu bakar baten bidean batzen badira: pertsonen bizi-baldintzak hobetzea. Herri Mugimenduek ezin dute ildo politikoei jarraiki jardun, eta ezin dira ideologia bakar batekin lerrokatu, Herri Mugimenduen baitan ez dago buruzagirik, berdinzaleak dira; inork kapitalizatzen dituenean, akabera da.

Esate baterako, Pentsionisten Mugimendua hain justu horregatik ahuldu da espainiar estatuan: zenbait alderditako ordezkariak saiatu direlako mugimendua kontrolatzen. Euskal Herrian, aldiz, pluraltasunari eusten jakin dugu, eta horregatik, oraindik, 2.000-3.000 lagun batzen dira elkarretaratzeetara. Jendeak hemen, oraindik, ordezkatuta ikusten du bere burua, eta ez dugu sentitzen beste inor ari denik gu manipulatzen edo mugimendua bere mesedetan erabiltzen.

Zentzu horretan, gaur egungoak ezin ditugu benetako sindikatutzat jo, denak, CNT izan ezik, direlako diru-laguntzen mendeko. Nola irauliko dute egitura egituratik bizi badira? Horrexegatik gara gaur CNTkoak hain minoritarioak: estatuari eta kapitalari ez ezik, beste sindikatuei ere aurre egiten diegulako eta, azken batean, kontra egiten diogulako sindikatu bertikaletik datorren ereduari, II. Mundu Gerra osteko Alemaniatik kopiatutako eredu horri, alegia.

Egoera honek ez du zerikusirik Franco hil osteko Langile Mugimenduarekin. Artean, diferentzia ideologiko-politikoak baziren ere, sindikatuen arteko batasuna eta elkartasuna zegoen, klase-kontzientzia zegoen, batzuen borroka beste guztiona ere bazen. Hain zuzen garai hartan, 1978an, Bizkaiko Ehungintzaren Merkataritzako lehen hitzarmena lortu genuen. Esperientzia izugarria izan zen, grebak 25-26 egun iraun zituen, langile gehien-gehienak emakumeak ziren eta sekulako jarrera erakutsi zuten, garaipen handia izan zen. Baina orduantxe hasi ziren, baita ere, gauzak aldatzen, lehen hauteskunde sindikalak egitearekin batera. Eta, orduz geroztik, ikusten ari gara sindikatuen arteko lehia geroz eta handiagoa dela, eta Legebiltzarrerako hauteskundeen planteamendu bera nagusitu dela: langileek, afiliatzeko beharrik gabe, lau urtean behin bozkatzen dute, eta kito. Akabo Langile Mugimendua.

Trantsizio urte haietako konkista handienetakoa, Lemoizko Zentral Nuklearra sekula ez irekitzea lortu genueneko hura, askoren arteko batasunari esker izan zen baita ere. Borroka molde ezberdinak uztartu genituen xede bakar batekin, eta lortu genuen.

Izan ere, eraginkortasuna helburu zehatzak lortzearekin lotzen dut. Adibidez, Bilboko Konpartsak Auzo Elkarteen Mugimendutik jaio ziren, eta gure buruari planteatu genion helburua erdietsi genuen: jai herrikoiak lortzea eta Konpartsak erabakiguneetan egotea. Horrela sortu zen gaur egun ezagutzen dugun Aste Nagusia.

Azkenaldian memoria historikoari loturiko ekimenetan nabil nahastuta eta, kasu honetan ere, jomuga oso definituen bila eragiten dugu. Adibidez, lortu dugu Santutxun, Orue Etxean, kartzela hartan giltzapetu eta fusilatu zituzten emakumeen omenezko monolito bat jartzea, eta urtero egiten diegu oroimen ekitaldia. Bost urteko borroka izan da. Eraginkorra? Bai!

> ***Alderdi politikoak diruarekiko menpeko dira militantzia falta zaielako”***

Ziklo politiko berriarekin batera Bildu instituzioetan sartu izana ongi iruditzen zait, harreman ona dugu haiekin. Baina, ez dut uste sakoneko gauzak aldatuko direnik. Alegia, ez gaitezen engaina: benetako boteredunak, sistemaren benetako buruzagiak Botín anderea, BBVA, Banco Sabadell, Iberdrola eta enparau dira.

Alderdi politikoek, gainera, menpekotasun ekonomiko erabatekoa dute; orduan, nola espero dezakegu erakundeetan dauden kargu publikoek ezer iraultzea instituzioetatik? Independentzia ekonomikoa ezinbestekoa da burujabetzarako eta ekintzailetzarako. Botere faktikoak horrexegatik dira faktiko: ekonomiaren eta diruaren gaineko kontrola dutelako. Historian atzera begiratzen badugu, alderdi politikoek ez dute inoiz iraultzarik egin, ezta ezkerrekoek ere... eta ez dute egingo, soilik sistemak markatzen dituen marjinen barruan aritzen dira.

Eta, zergatik dira alderdi politikoak diruarekiko hain menpeko? Bada, militantzia falta zaielako. Eta hori gai serioa da, oso kezkagarria, gaur egun kasik ez delako militantziarik geratzen. "Ordainduko didazu? Bestela, beste gauza asko dauzkat egiteko", hori da orain gailentzen den pentsaera, eta ez dut esaten lehengoa baino hobea edo okerragoa denik, baina desberdina da. Klase-kontzientzia, bederen, ez da desagertu. Noski, oraingo langileek ere badakite langile direla... baina eskubideak sindikatutik defendatze hori, elkarrekin ekinez baldintzak hobera alda daitezkeela sineste hori... hori desagertu egin da.

Gainera, bizi dugun lasaitasunezko giro politikoak iraun bitarte, horrelaxe jarraituko dugu. Gazako irudiak ikusten ditugu egunero eta... ezer gutxi egiten dugu. Manifestaldietan, behintzat, betikoak elkartzen gara. Gauzak gaizki egiten ari garen seinale. Bestalde, zer edo zer eragiten duten mugimenduak ez daude koordinatuta, bakoitza bere kasa dabil, komunikazioa ustez inoiz baino hobea den garaian.

Horrekin lotuta, sare sozialak min handia egiten ari dira. Orain denerako sakatzen dugu tekla eta, badirudi, hori bera eginda konponduko zaizkigula arazoak. Baina sare sozialak ez dituzte langileek ezta Herri Mugimenduek diseinatu, eta tekla sakatzen dugun bakoitzeko aberasten ditugu Elon Musk eta besteak.

> ***"Honek guztiak ez du zentzurik gazteriak ez badu gizartea eraldatzeko borondaterik, edo ez badu horretarako beharrik ikusten"***

Herri Mugimenduek, batez ere, belaunaldi berriekin konektatzeko zailtasunak dituzte. Bitxia da: askotan jotzen dute guregana, pentsionistengana, beste ekimen batzuk babestu ditzagun, lidergoa dugulakoan. Tristea da, gu dagoeneko iragaitzaz gaudelako hemen eta gazteei dagokielako etorkizuna aldatzea.

Helburu zehatzak aipatu ditut, baina keinu edo ekintza txikiekin ere lor daiteke transformazioa. Esate baterako, nik beti erosten dut herriko dendetan, Internet bidez eginez gero Amazon beste inor ez delako aberasten eta, batez ere, oso gogoan dudalako nolako funtzio garrantzitsua izan zuen herri-merkataritzak desindustrializazio garaian. Fabrika handiak ixten hasi zirenean, langile ohiek, aurrera egiteko, tabernak, dendak... zabaldu zituzten herrietan, eta auzokideen elkartasunari esker funtzionatu zuten. Eskudirutan ordaintzea ere bada banketxeek are gehiago irabaz dezaten galarazteko modu bat, nik beti eramaten dut dirua aldean.

Hala eta guztiz ere, honek guztiak ez du zentzurik gazteriak ez badu gizartea eraldatzeko borondaterik edo ez badu horretarako beharrik ikusten. Batzuetan, nire adinekoen eta militantzia esperientzia jakin bat bizi izan dugunon abiapuntua da pentsatzea jendartea aldatu behar dela. Baina, agian, gaurko gazteak ongi daude dauden bezala eta, zenbait ideia transmititzen saiatzen garen arren, haiek ez dute ezer aldatu nahi, edo agian ez dute iraultza soziala beharrezko ikusten.

Herri Mugimendua(k)

Eraginkorra(k) ote?



BASQUE AUDIOVISUAL

> *Herri Mugimenduek beharrizan batetik jaio behar dute, ez dago ezer asmatu beharrik”*



MARI CARMEN MORENO MARTÍNEZ

Bilbo, 1942

Artean txabola-auzoa zen Uretamendin egin zituen lehenengo urrats militanteak, 17 urte zituelarik, Juventud Obrera Cristiana (JOC) delakoaren baitan: "Garai hartan, komunistak eta sozialistak salbu, beste denok langile-apaizen gidaritzapeko mugimenduetan aritzen ginen". Gerora ere, langile-borroka izan zen bere lema 25 urtez: Euskadiko Mugimendu Komunistan (EMK) aritu zen klandestinitatean, barru-barrutik bizi izan zituen 60ko eta 70eko hamarkadetako greba handiak, eta espetxea ere ezagutu zuen. Horregatik, pena handiz gogoratzen du Franco hil ostean nola ugaritu ziren sindikatuen arteko norgehiagokak, eta horrek nola ahuldu zuen Langile Mugimendua patronalaren mesedetan. Herri Mugimenduen fagotizazioarekin lotzen du hori.

Ama gisa, Ikastolen Mugimenduari egin zion ekarpena, "nire seme-alabak Karmelo Ikastolako bosgarren belaunaldia izan ziren, dena egiteke zegoen" eta, aurrerago, Elkarri mugimenduan aritu zen horren ibilbide osoan.

Duela 20 urte erretiroa hartu zuenetik, auzo mailako ekimenetan parte hartzen du, baita erretiratuen bizi-baldintzak hobetzearekin zerikusia duten egitasmoetan ere. Duela bi urte, bestalde, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforman dihardu buru-belarri, "migratzaileena da –dio–, oraintxe gehien mugitzen nauen auzia". Egin duen bizi-ibilbidearekin "pozik eta zoriontsu" dago eta, esperientzia horretatik abiatuta, gogotsu egin nahi dio ekarpena Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoari buruzko hausnarketa kolektibo honi.



> ***Lehentasunak finkatzea da gakoa, eta horiek xede eskuragarriekin konbinatzea”***

Herri Mugimenduek, halako izateko, lehenik eta behin, beharrizan batetik jaio behar dute. Hortik eratortzen dira aldarrikapenak, ez dago ezer asmatu beharrik; eta aldarrikapenek, gorpuztu daitezen, gutxieneko antolakuntza bat galdatzen dute. Hortaz, beharrizan batetik abiatuta eta behetik integratuta, pertsona konprometituak koordinatuz egiten dute aurrera Herri Mugimenduek.

Helburu teoriko handiak ondo daude, neuk ere EMKren lehen urteetan Mao Tse Tung-en liburu guztiak irakurri nituen, eta utopiak gogoan edukitzea ere garrantzitsua da, baina ez dute balio eraginkor izateko. Lehentasunak finkatzea da gakoa, eta horiek xede eskuragarriekin konbinatzea; mugimendu apalekin lor daitezkeen helburuek adorea ematen dute eta jendea kohesionatzen dute. Beste lan lerro batzuk ere eduki behar dira paraleloan, esfortzu handiagoa eskatzen dutenak beharbada, baina are jende gehiago saretzen dutenak.

Esate baterako, 1966ko azaroan hasi zen Bandetako Grebaren kasuan, ni artean Firestoneko langilea nintzen, horixe izan zen garaipen handiena: inplikatu ginen guztion arteko batasuna, antolaketa, elkartasuna. Horrek guztiak sei hilabeteko borroka hartatik harago iraun zuen, langile mugimendu klandestinoaren oinarriak eta beste borroka askotarako zimenduak finkatu genituelako. Gainera, greba hura dela-eta hasi ginen lehenengo emakume-bilerak antolatzen ere: langileen emazteekin batzen ginen eurek ere jakin eta uler zezaten zer ari zen gertatzen.

Bestalde, Burgosko Prozesuaren kontrako mobilizazioekin –1970–, sei heriotz-zigor eskaera indultatzea lortu genuen, eta arrakasta gisa bizi izan genuen hura.

Puig Antic-en exekuzioaren aurkako mobilizazioak –1974– eta Txiki eta Otaegiren fusilamenduen kontrakoak –1975– ere oso ondo gogoratzen ditut. Oroitzapen gazi-gozoa da, noski, azken horien kasuan ez genituelako helburuak lortu, baina mobilizazio oso indartsuak izan ziren, eta horietan langile-borroka uztartu zen erregimenaren aurkako borrokarekin eta nazio-borrokarekin.

Geroago etorri ziren gure enpresako –Firestone– grebak eta kanporatzeen kontrako borrokak, eta horrek ere asko indartu gintuen, eta irabazi egin genuen gainera!

Euskal Herritik kanpo, garai hartan, Portugalgo Krabelinen Iraultza –1974–, Kuba, Ipar Irlanda... erreferente izan genituen, eraginkor eta mingarri, neurri berean.

> ***Kausa bat soilik zeure egiten baduzu, borroka horretan bakarrik geratzeko arriskua duzu”***

Mende erdi geroago, gauzak asko aldatu dira. Gurean, interesez segitzen ari naiz Ezker Abertzalearen baitako eboluzioa. Ez da prozesu homogeneoa, jakina, baina, oro har, norabide positiboan doa. Hala ere, badago betebehar moral bat: espetxean segitzen duten presoak; lehen txalotzen zituzten horiek ezin dituzte orain atzean utzi.

Gaur egun, herritarrak euren eguneroko behar zehatzetatik abiatuta batzen dira mugimendu jakin batera. Eta horrexegatik diot Herri Mugimenduak indartzeko gakoa

dela jendartearen beharrekin bat datozen helburuak planteatzea, eta horietan sinestea.

Mugimendu askoren baitan ezkerrak indar handia du eta jendea mobilizatzeko gaitasun handia ere bai, baina kontuz ibili behar dugu, ezin dugu dena gure egin, beste jendeari ere utzi behar diogu lekua. Pentsionisten Mugimenduaren deialdietara, adibidez, lehen orain baino askoz jende gehiago batzen zen. Kausa bat soilik zeure egiten baduzu, borroka horretan zu zure buruarekin bakarrik geratzeko arriskua duzu. Gogora dezagun arazo partekatu baten bueltan batzen den jendeak osatzen dituela Herri Mugimenduak, nahiz eta ideologia ezberdinetakoak izan. Alegia, auzoan eskola eraiki dezaten borroka egingo badugu, alde batekoak eta bestekoak elkartuko gara, zuriak, beltzak eta urdinak ere bai. Bide batez, ahulguneez ari naizela, aipatuko dut gizarteak alderdi politikoekin desengainua hartu duela eta, testuinguru honetan, Herri Mugimenduak goxoki hutsak direla azken horientzat; jendea mobilizatzeko gaitasuna duten ekimenetara hurbil daitezke bere egiten saiatuz, Herri Mugimenduak mugimendu politiko bilakatuz.

> ***Eskuin muturraren goraldiak iraun bitarteko denbora aprobetxatu behar dugu hausnarketa egiteko: nola eta nolako baloreekin atera nahi dugu garai ilun honetatik?"***

Eskuin muturraren goraldia ukaezina da. Nolabait, tunel batean sartu gara eta, euren goraldiak iraun bitarte, eutsi egin behar dugu. Eta, batez ere, tuneletik atera bitarteko denbora aprobetxatu behar dugu hausnarketa egiteko: nola eta nolako baloreekin atera nahi dugu garai ilun honetatik? Nola lortu dute eurek zu eta ni bezalako jendearekin konektatzea? Teknologia gure erara eta gure mesedetan nola erabili ere pentsatu behar dugu, ezin baitiogu bizkarra eman. Berriro diot: sare sozialetan zabaltzen ditugun mezuek ere jendearen beharrizan errealekin konektatuta egon behar dute.

Hurbiltasun hori, kausak nork bere azalean sentitze hori oso garrantzitsua da. Bi urte daramatzat Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforman, familia barruko errealitate batetik abiatuta hurbildu nintzen. Problematika jakin batek zure bizitza zeharkatzen duenean, ezin duzu beste alde batera begiratu. Egiazkotasun hori, gainera, pluraltasunerako bermea dela ulertu dut. Hain errealitate gordinak dauden lekuan, espazio gutxi geratzen da ideologizaziorako.



Herri Mugimendua(k)

Eraginkorra(k) ote?



BERRIA

“Jendea sentimenduetatik aktibatuko duen mobilizazio eredua sustatu behar dugu”



OIHANA ETXEBARRIETA LEGRAND

Hondarribia, 1987

***Euskaldunon Egunkaria*ren itxiera eta Irakeko gerra mugarriak izan ziren bere nerabezaroan, bi gertakari horiek erantzun-bulkada eragin ziotelako barru-barruan. Geroago, institutuan, Ikasle Abertzaleak-era batu zen, eta unibertsitatean segitu zuen, "potenteago". Hain justu garai hartan, Jarrai-Haika-Segi-ren aurkako epaiketaren (2005) harira, bizi izan zuen gertuagotik errepresioa: "Orduko bikotekidea eta lagunak espetxean edukitzeak asko mobilizatu ninduen".**

Bere eskualdean, Irungo gaztetxean aritu zen eta Bilgune Feministaren bertako taldearen sorreran parte hartu zuen. "Hondarribitik atera behar izan nuen gauzak egiten hasteko –dio–, gure herrian antolatzeak ostrazismoa zekarren". Feminismoak pisua hartu zuen bere jardun militantean, eta hortik etorri zen alardean Jaizkibel Konpainiarekin ateratzeko erabakia. Euskal Herria Bildu alderdira ere "feminismoetatik" sartu zen, eta legebiltzarkidea da egun, ez buruhauste gutxirekin: "Uztarketa zaila da. Ez dakit erakundean gaudenean gure buruari mugak jartzen ote dizkiogun ala ez ote dauzkan lan instituzionalak berak Herri Mugimenduek ez dituzten hainbat muga". Kazetaria da eta irrati komunitarioetan dihardu uhinak feminismoaren mesedetan baliatuz. Elkarrekin kafe gehiago hartu behar ditugula aldarrikatzera dator.



> **Gauza bat da berdintasuna aldarrikatzea, eta beste bat, oso ezberdina, horrek inplikatzen dituen pribilegio-galerak onartzea"**

Herri honen pultsua eta agenda politikoa markatzen duten eragileak dira Herri Mugimenduak; abangoardia izan dira gai askoren bueltan. Mugimendu Feministarik gabe, esate baterako, zaintzen auziak ez luke izango egun duen garrantzia politikoa. Edota, errefuxiatuen gaiari dagokionez, Herri Mugimenduek ez beste inork lortu dute alderdi politikoak hausnarketara behartzea.

Herri Mugimenduen eraginkortasuna, beraz, gizarteko gainerako aktoreen diskurtsoak eta eztabaidak baldintzatzeko gaitasuna da, baita jendea mobilizatu eta kaleak betetzeko ahalmena ere. Eraginkortasun politikoa edukitzeko, ordea, ezinbestekoa da horrek guztiak, gainera, errealitatean aldaketak eragitea. Zaintzen adibidera itzuliko naiz: Mugimendu Feminista, Langile Mugimendua eta gizartea bera lotu dira aldarrietara. Baina, instituzioek diskurtso horiek kooptatzetik harago, praktikan ez da egon jauzirik. Zaharren egoitzek pribatu izaten segitzen dute, zaintzen alorreko langile prekarizatu gehien-gehienak emakumeak dira oraindik ere. Alegia, diskurtso mailako aldaketa sozial eta politiko nabaria egon da, baina horrek ez du islarik izan onartu diren legeetan eta kudeaketetan. Antzeko adibide gehiago bururatzen zaizkit: gutxieneko soldataren aldarriak lortu du gehiengo sindikala batzea, eta Pentsionisten Mugimenduak ere ahalmen mobilizatzaile handia du. Baina lege-aldaketa batek zein besteak berehalako neurriak inplikatuko lituzkete, eta hitzetatik ekintzetara pasatzeko unean agertzen dira arazoak.

Beste baldintza bat ere aipatuko nuke Herri Mugimendu baten eraginkortasun politikoa halakotzat jotzeko: besteen aitortza politikoa, alegia, interlokuzio politikoa merezi duen eragiletzat hartzea besteek. Jaizkibel Konpainiaren borroka eredugarria izan da zentzu horretan, eta Emakundek saritu du, Bidasoaldean ez ezik hemendik kanpo ere emakumeak kokatu dituelako herrietako espazio publiko garrantzitsuetan, baita festen testuinguruan ere. Irungo Alardearen kasuan, barrurantz zein kanporantz gertatu da hori. Hondarribian, aldiz, bitxia da, baina ez gara gai izan zenbait herrikideren posizioak mugiarazteko, pertsona eta familia jakin batzuen pribilegioekin egin dugulako topo. Talka hori bera beste auzi askotan gertatzen da: gauza bat baita berdintasuna aldarrikatzea, eta beste bat, oso ezberdina, horrek inplikatzen dituen pribilegio-galerak onartzea.

Beste horrenbeste ikusten ari gara palestinarren aurkako genozidioa dela-eta. Kontrako posizionamenduak egon dira, kasu batzuetan inoiz imajinatuko ez genukeen eragileen aldetik, baina zer gehiago gertatu da? Ezer ez. Giza eskubideen bueltako nazioarteko sistema instituzional guztia erori da eta herrialde arabiar batzuk erraz lerrokatu dira dirua dagoen aldean. Oso frustragarria da. Bide batez, esango dut: gaur inoiz baino gehiago, Herri Mugimenduen arerio handiena, garaitezina dirudiena, ikusezina baina ongi identifikatua duguna, nazioarteko merkataritza-sareen boterea da, dirua alegia.

> **Kolektiboen gainetik pertsona jakin batzuek irabazi dute erreferentzialtasuna, militante birtualak ugaritu dira eta kaleak hustu zaizkigu"**

Euskal Herriko testuinguru politiko berriari dagokionez, borroka armatuaren amaierarekin batera halako eferbeszentzia bat sumatu genuen, bide politiko eta sozialetan oinarritutako mugimenduen loraldi moduko bat. Eta ilusioa instituzio mailan ere bai. Gerora, baina,

zatiketa fase batean sartu gara, borrokak izugarri partzializatu dira eta kosta egiten ari zaigu ezberdinen arteko aliantzak lortzea. Duela 15 urteko garai gogorretan baino saretze eta koordinazio ahulagoa dugu orain.

Horren azalpena izan daiteke orain lehentasuna eta ikusgarritasuna hartu dutela lehen emergentziazkoak ez ziren zenbait borrokak. Baina, batez ere, konpromisoaren zein militantziaren ulerkera aldatu da eta, ondorioz, zaintzaren ikuspegi triangeluar hori –pertsona, taldea, proiektua– galdu dugu. Urte luzez aritu ginen proiektuari zeharo emanda. Gero talde-dinamikei aitortu genien garrantzia. Eta orain nor bere zilborrari begira ari gara. Alde batetik, ulergarria da: nork bere minak osatzeko denbora behar izan dugu; oraintxe hasi gara torturaz hitz egiten edota gazteen kontrako errepresioaren ondorioez mintzatzen. Autozaintzarako eta hausnarketarako beharrizan handia egon da, batez ere bisagra-belaunaldia garenon artean, baina gogoratu behar dugu eraldaketa soziala ez datorrela norbanakotik, baizik eta elkarrekikotasuna eskatzen duela.

Indibidualismo horretan kokatuta eta sare sozialek hauspotuta ugaritu dira militante birtualak, eta hustu zaizkigu kaleak. Mugimendu Antiarrazistan, adibidez, nabarmena da kolektiboen gainetik pertsona jakin batzuek irabazi dutela erreferentzialtasuna. Eta diskurtso baliagarriak eduki ditzakete, baina zenbait kasutan inportatutako eztabaidagaiez aritzen dira eta ez daude antolatuta. Beste behin, proiektua-taldea-norbanakoa hirukoa ahazten ari zaigu. Komunikabideen dinamikek ere horixe indartzen dute, berehalako adierazpenak behar dituztelako eta soilik bere kabuz pentsatzen duen norbaitek erantzun diezaiokeelako erritmo horri. Aldiz, kolektiboek taldean kontrastatu behar dituzte ideiak. Hedabideek gaur markatzen duten tempo azkarrak, beraz, kolektiboen gogoeta pausatuen galera ekarri du.

Denborez ari garela, eta hau esperientzia pertsonaletik diot, talka gertatzen da, baita ere, Herri Mugimenduen eta erakundeen artean, azken horien erritmoak oso arinak direlako. Legebiltzarrean maiz adierazpenak eta posizionamenduak egin behar ditugu gertakarien edota proposamenen aurrean, eta beti ez dugu denborarik izaten, adibidez, Mugimendu Feministarekin kontrastatzeko. Espazio ezberdinen aitortzarekin ere gertatzen da. Batzuetan bati dagokio konfrontazioaren lidergoa, baina beste batzuetan itxarotea tokatzen da, besteek egin dezaten.

> ***“Elkar aitortu, ulertu eta agenda-estrategiak partekatzeko espazio gehiago behar ditugu”***

Hain justu lidergoagatiko norgehiagoka horrek oztopatzen du ezberdinen arteko adostasunak lortzea. Bizitzak Erdigunera plataformaren baitan, esaterako, sindikatu batek gailendu nahi izan du. Mugimendu Antiarrazistaren baitan ere gatazkak sortzen dira ustez profesionalizatuago dauden elkarteen, SOS Arrazakeria adibidez, eta eragile independenteagoen artean, emakume arrazializatuen zenbait elkarte kasu. Kezkatuta nago. Oro har eta auzi guztietan, gehiago zentratzen ari gara bereizten gaituzten kontuetan adostasunetan baino. Horrek garamatza, halaber, besteen aldarriekin interpelatuta ez sentitzera, eta soilik gureen deialdiekin bat egitera.

Oso gutxitan sentitzen dugu besteen mobilizazioetan egon behar dugula, eta horri buelta ematea da begi aurrean dugun erronka handienetako bat: jendea sentimenduetatik aktibatuko duen mobilizazio-eredua sustatu behar dugu. Elkarretaratze batera joateko crossfit klasea, autozaintza faltsu hori, galtzeko prest dagoen jendea behar dugu. Eta horretarako kafe pila bat hartu behar ditugu elkarrekin. Elkar agurtu, entzun, egon, beldurrik gabe hitz egin, besteen kritikak onartu eta etxean mahaigaineratu. Elkar aitortu, ulertu eta agenda-estrategiak partekatzeko espazio gehiago behar ditugu.

Herri Mugimendua(k)

Eraginkorra(k) ote?



ARITZ LOIOLA / FOKU

Egoak, mesfidantzak eta bentajismoak alde batera utzita konfiantza politikoa lortzeko gai diren bideak dira eraldatzaileenak”



JOSEFINA 'TXEFI' ROCO SANFILIPPO

Salta, Argentina, 1979

Nerabea zelarik hasi zen Elizari loturiko taldeetan jarduten, baina Buenos Airesen unibertsitate ikasketak abiatu zituenean bilakatu zen "gorriagoa". La Rabia izeneko kolektiboarekin bizi izan zituen lehenengo esperientzia militanteak: "Talde hori sortu eta horren bitartez lotu ginen Unión de Trabajadores Desocupados (UTD) kolektibora eta baita nekazarien, auzo-batzarren eta berreskuratutako fabriken mugimenduetara ere. Herri-hezkuntza, ikerketa-ekintza, prestakuntza politikoa, material pedagogikoak... egiten genituen".

Urtebeteko beka bati esker etorri zen lehenengoz Euskal Herrira, 2008an... orain arte. "Hasiera-hasieratik ezagutu nituen hemen emakume oso indartsuak, urteak zeramatzatenak etxeko langileen eskubideen alde borrokan, eta horixe izan zen nire militantzia nagusiki emakumeen esparrura bideratzeko inflexio puntua". Bilbora etorritako emakume latinoei buruzko tesia idatzi zuen eta, arian-arian, ekonomia feministan eta etxeko lanen nahiz zaintzen auzian sakonduz joan zen. Qaur egun sindikalgintzan dihardu, baina lurrarekin konektatzen duen kablea zein den argi du: Etxekotu Qabeko Emakume* Langileak izeneko kolektiboa. Duela hamar urte horren sorreran lagundu zuen.

Interesgarria eta beharrezkoa iruditzen zaio horrelako elkarrizketak bideratzea, "Herri Mugimenduen introspekzioaren lekuko" izaten ari garelako: "azkenaldi luzean pertsona berberak gabiltzalako militantzia espazio desberdinetan, kosta egiten zaigu gure burbuiletatik ateratzea".



> ***Herri Mugimenduen barruan askotariko identitateak ikusteko gai diren betaurrekoak jantzi behar ditugu”***

Eraldaketa emantzipatzailerantz elkarrekin eta norabide berean diharduten kolektiboen eta eragileen sarea dira Herri Mugimenduak, nahiz eta batzuetan ez duten elkar errekonozitzen. Kontraboterearekin lotzen ditut baita ere, burujabetza politikoarekin, eta lurraldeen nahiz gorputzen subiranotasunarekin.

Horien eraginkortasun politikoaz gogoeta egiteko, lehenik eta behin, bi kontzeptu berrikusi behar ditugu: eragitea bera zer den, eta nork eragiten duen. Eta, hala, ziur aski, eraginkortasunaren ideia bera birpentsatuko dugu. Izan ere, maiz, logika produktibistatik ematen diogu zentzua, soilik zenbagarria den zerbaitekin lotzen dugu eta ekoizpenaren gurpil zoroan sartzen dugu militantzia: egin, eragin, egin. Aldiz, gure begietan ikusezin bilakatzen ari dira transformatzeko beste era asko, txikiagoak, molde tradizionaletatik aldentzen direnak erritmoan nahiz forman. Esate baterako, Euskal Herrian gaur egun, oraindik, besteren etxeetan 700 euroren truke eta askotariko indarkeriak pairatuz 7/24 lan egiten duten emakumeen errealitate horrekin akabatzea urgentziazkoa da eta berehalako ekintza eraginkorrak galdatzen ditu. Aldiz, badira beste zenbait aldaketa ia estrategien jomugan jarri gabe ere etortzen direnak, prozesu luzeen ustekabeko emaitza gisa. Dena dela, lorpen zehatzik gabe ere izan gaitezke eraginkor, baldin eta boteredunentzat mehatxu deserosoa bagara, eta gure posizioetan eta exijentzietan tinko mantenduta haien erabakien norabideak baldintzatzen baditugu. Ahalmen sinboliko horri eutsi behar diogu.

Subjektua ere birpentsatu behar dugu, batzuetan, oraindik, militantzia eredu hegemonikoa erreproduzitzen dugulako: hierarkikoa eta asimetrikoa, heteronormatiboa eta zuria. Herri Mugimenduen barruan askotariko identitateak ikusteko gai diren betaurrekoak jantzi behar ditugu; hartara, asko zabalduko dugu eragin eremua ere. Taldea zainduko duten mugimenduak behar ditugu, baina kolektibotasun hori homogeneizatu gabe eta borrokak hierarkizatu gabe.

Konfiantza politikoa eraikitzeko gai diren bideak dira eraldatzaileenak. Egoak, mesfidantzak eta bentajismoak alde batera utzita, beste borroka batzuetan diharduten pertsonengan zure burua islatuta ikusten duzunean gertatzen da hori; eta, batez ere, prozesuak eta borrokak beste kide batzuen ondoan bizitzen dituzunean. 2001eko abenduan, Argentinan Korralitoa lehertu zenean, kaleko protestetan parte hartu genuenok bizi izan genuen intentsitateak sekulako konplizitate politikoa sortu zuen gure artean, gaurdaino iraun duena. Altxamendu hark, eferbeszentzia hark, ordura arteko eskema guztiak apurtu zituen, askotariko kolektiboen haserreek bat egin zutelako norabide berean. Antzeko zerbait sentitu dut Greba Feministarekin. Talde eragilean, koordinazio espazioetan zein lurralde esparruetan askotariko lankideekin prozesua abiatzea, elkarrekin orgatik tira egitea, entzutea eta eztabaidatzea, beti ere elkarrenganako errespetutik eta aintzatespenetik. Lan handia izan da eta, Mugimendu Feminista anitza garen aldetik, horixe da dugun indargune nagusia.

> ***Berreskura dezagun taldearekiko konpromisoa: besteekin gara”***

Gaur egungo Euskal Herrian, mundu mailan bezalaxe, herritik sortu ziren aldarrikapen eta ekimen asko botereak kooptatu ditu, bere egin eta birkonfiguratzeko. Eta, zenbaitetan, hori kontra etorri zaigu,

zapalketa sistema are sofistikatuago baten gisara. Herri Mugimenduetatik koordinazio are handiagoarekin erantzun beharko genuke baina... ez dakit prekarietateagatik izango ote den, ala bizi-estilo jakin batzuen erosotasunaren aurrean amore eman dugulako... ez dugu behar bezainbeste zalantzan jartzen sistema, ezta zein den gure posizioa kate horretan ere, edota zein desberdinkeria eragiten dugun gure lekutik.

Joera horien aurrean, militantzia hitza aldarrikatu nahi dut engaiamenduaren sinonimo bezala: gure bizitzen parte handi bat proiektu kolektiboari emateko hautua da. Autozainketaren ideia bolo-bolo dabil orain, Mugimendu Feministaren baitan adibidez, eta nekatu ez ezik, kezkatu egiten nau, apur bat arriskutsua iruditzen zait eta. Bere burua zaintzeko aukera gutxi batzuek dutelako, egoera pribilegiatuenetan daudenek, eta hori egiten dutenean beste kide guztien zaintza alboratzen ari direlako. Berreskura dezagun taldearekiko konpromisoa: besteekin gara.

Eta horretarako ez dago eredu bat eta bakarra. Zentzu horretan, gainera, aldaketa positiboak izan dira azken 12-15 urteetan. Euskal Herrira iritsi nintzenean, ekimen guztiek segitzen zuten eskema bera: gai-zerrenda eta pum-pum-pum, edo pankarta eta manifa... oso zurruna zen. Orain, esate baterako, hasi gara emozioak ere ekartzen militantzia espazioetara, hasi gara partekatzen gure minak eta zamak; asanbladetan zizka-mizkak izaten dira, manifestaldietan musika... Aldaketa horiek guztiek zerikusia dute Hegoetako lagunek Euskal Herriko Herri Mugimenduetan duten presentzia geroz eta handiagoarekin, edota bertako mugimenduek Hegoetako metodologiak txertatu izanarekin. Edozein kasutan, subjektu berriak batzen ari dira aldarrikapenetara, eta horrek politika egiteko gure maneren aurrean erne egotera garamatza, iraganeko inertzietan erori gabe: benetan izan daitezen jasangarriak, horizontalak eta parte-hartzaileak, egiaz jar ditzaten bizitzak erdigunean.

Maila komunikatiboan, neoliberalismotik oso ondo ari dira. Jendartearen zati desmobilizatu eta indibidualista hori identifikatzen jakin dute; tarteka konformista, tarteka triunfalista. Badakite zein diren euren espektatibak, beharrak eta ezinegonak, eta horien gainean eraikitzen ari dira beren diskurtso eta proposamen manipulatzaileak. “Nik nirea; eta besteari gaizki badoakio, bada, izango da ez duelako nahikoa egin” motako ideiak sartzen ari dira sare sozialen bitartez. Izan ere, teknologiak tresna izan beharko luke, baina boterea da. Hala ere, euskal jendartea bestelakoa dela uste dut, oraindik badugu gizartearen zati bat oso borrokalaria. Aldiz, ez dugu lortzen gure mezuak geruza horretatik harago helaraztea; betiko formuletan segitzen dugu, tarteka gainera aldatu nahi dugun horren moldeak erreproduzitzen, dagoeneko konbentzituta daudenak konbentzitzen.

> ***“Euskal Herrian joera handia dago mezuak igorlearen arabera aldez aurretik epaitzeko”***

Konfort zonetatik atera behar dugu aurrera egiteko. Guretik harago zer gertatzen ari den bilatu, entzun, ulertzen saiatu, eta zubiak eraiki. Nola hurbildu gaitezke gure mezua jasotzeko predisposiziorik ez duen jendearengana? Hori da erronka! Emakume Migratu eta Arrazializatuen Mugimenduaren baitan horretan gabiltza... eta sumatzen ari gara Euskal Herrian joera handia dagoela mezuak formaren arabera eta, batez ere, igorlearen arabera aldez aurretik epaitzeko.

Askoz hobe litzateke gure burua maizago berrikusiko bagenu. Txiringitoak sortzeko joeren aurrean eta pertsonalismo toxikoen kontra, defenda dezagun intersekzionalitatea, baina ez identitateetatik, baizik eta borroketatik. Alegia, epe laburreko ikuskera objektibisten aurrean, egin dezagun apustu bide kolektiboen alde. Urgentziazkoak ez diezaiola denborarik kendu garrantzitsua den horri.

Abya Yalako kideek, emakumeek, Susmoaren Filosofiaz hitz egiten dute. Jakintzat emandako hori uneoro desnaturalizatzeko eta zalantzan jartzeko ariketa da. Horrek gu geu ere barne hartzen gaitu, eta aurrerantzeko lana gidatzeko irizpide egokia izan daiteke.

Eraginkorra(k) ote?

Herri Mugimendua(k)



ARGIA

“Ez dugu borrokatu behar borrokatze hutsagatik, baizik eta irabazteko”




TXOMIN POVEDA

Baiona, 1992

Berak dioen bezala, akaso soziologoa delako eta "autoazterketa" egina duelako, argi bereizten ditu bere pentsamendua eta jarduna baldintzatu duten bi ardatzak. Ezker muturreko ideologia eta humanismoa etxetik jaso zituen, gurasoengandik. Haiek ez ziren euskaldunak ezta abertzaleak ere, ordea. Beste adar hori "ezberdinkeriazko eta zapalkuntzazko bizipen konkretu material" batetik eratorri zen. Ikastolan bizpahiru urte egin ondoren, frantziar estatuko eskola ofizialera aldatu zuten, sail elebidunera: "Han 'le basque' deitzen ziguten, euskotarrak, bazen halako ezberdintze bat". Ikasketetan aurrera egin ahala handituz joan zen ezberdinkeria, eta horrek eraman zuen Segi gazte erakundera engaiatzera. Ikasle Sindikatuetan ere militatu zuen frantses estatuko Lizeoan, eta fakultatean geroago.

Herrian, gaztetxean, gazte asanbladan eta Euskal Herria Zuzenean Festibala (EHZ) ekimenean ere aritu da, baita mugimendu ekologistan, Iratzar Fundazioan eta Ekonomia Sozial Eraldatzailearen esparruan ere. Azken urteotan, bestalde, Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzalearen birsortze prozesuan parte hartu du, Batera plataforman.

"Biziki ongi eta baikor" heldu dio gogoeta-ariketa honi, bere hitzetan, gai "potoloa" izanagatik, ez delako kezka orokortua: "maiz jende militantea ikusten dut bere erronka eta arazo biziki konkretuetara oso lotuta, eta ez hainbeste antolakundeen eraginkortasun politikoaz hausnartzen".



> ***Antolakunde asko ikusten ditut baliabideak bideratzen euren zilborraren eraldaketara"***

Espazio politiko instituzionaletik at dauden eragile sozialak dira Herri Mugimenduak. Gizartea eraldatzea dute funtsezko funtzioa eta, beraz, xedeei dagokionez, handia da aniztasuna, nork bere jendarte proiektuak eta norabideak dituelako. Helburuak erdiesteko bide horretan baliabideak ongi optimizatzen dituen Herri Mugimendua da eraginkorra; eta emankortasuna metodiko izatearekin lotzen dugu gaurko egunean: ongi antolatuta aritzen dena, trebatua, gaitasun politiko handia duen hori da emankorra.

Ipar Euskal Herrian, esate baterako, azkenaldiko eredu eraginkorrenak etxebizitza eskubidearen aldeko Alda mugimendua eta ber paradigma aplikatzen duen Bizi! mugimendua dira. Bake prozesuaren esparruan, bestalde, Batera eta Bake Bidea plataformak biziki emankorrak izan dira. Batzuek eta besteek oso estilo ezberdinak dituzte, baina Ipar Euskal Herriko errealitate soziala aldarazi eta joko politikoa baldintzatu dute.

Emaitzak ala bideak zerk ote duen garrantzi handiagoa... Herri Mugimenduen baitan maiz errepikatzen den eztabaida da. Batzuek diote bidea bera badela eraldatzailea. Baina, uste horretan, antolakunde asko ikusten ditut baliabideak bideratzen euren zilborraren eraldaketara: barne-maila horretan aritzen dira etengabe, bizipen perfektuak edo biziki koherenteak bilatzen, antolakundea bera eta militanteak eraldatzen. Aldiz, ahaztu egiten dute zein den euren helburu behinena: gizartea eraldatzea.

Nire iritziz, emaitzak erdiestea da garrantzitsuena, bideari hainbeste erreparatu gabe. Horregatik da hain inportantea eta egiazko lana aldiro-aldiro eta ekimen bakoitzaren helburuak ongi definitzea. Batzuetan ez baitugu azken muga bilatzen –eraldaketa soziala–, baizik eta beste zerbait: irudia hobetzea, barne-indarrak aldatzea, baliabideak emendatzea, ondoko fasea prestatzea... eta gure jardunarekin emaitza horiek erdiesten ditugun neurrian, emankorrak gara.

> ***Sare sozialek marko globalekin konektatzen dute jendea, ez tokikotasunarekin, eta horixe da Herri Mugimenduentzat dakarten arrisku nagusia"***

Azken urteotan giro politikoa guztiz aldatu da Euskal Herrian eta, horrekin batera, kultura militantea irauli da: antolakunde nagusien siglak aldatu dira; toki fisikoak, marko sinbolikoak, egiteko moduak... lehengoak desagertu eta berriak agertu dira. Zenbait militantek utzi egin dute beren jarduna, beste batzuek hartu dute lekukoa.... dena aldatu da, eta engaiamendua ere bai, noski. Alegia, Langile Mugimenduarekin eta antolakunde bakarrean dabilen militante sutsu eta konprometituaren figura edo eredu hori apaldu egin da. Baina, aldiz, beste konpromiso maila batekin beharbada eta militantziarekiko beste itxaropen batekin, izugarri hazi da ikastolara, tokiko monetara, ekologismora, sindikalismora, euskalgintzara edota bake-prozesura lotu den jende kopurua.

Izan ere, kultura militantearen eraldaketa horrek guztiak, Herri Mugimenduei dagokionez, ezegonkortasuna ekarri du

hainbat urtez, eta orain, fase horren ostean, joko-arau berriak agertu dira. Esango nuke, Ipar Euskal Herrian, bereziki 2017tik hona ari dela ontzen eta fintzen beste militantzia eredu hori, eta jada hasi dela metodizatzen eta fruitua ematen. Borroka armatuarengatik zatituta zeuden zenbait espazio militante batu eta indartu dira, eta zenbait eragile azkar sortu dira, besteak beste, etxebizitzaren arloan edota Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako borrokan.

Lehen ez bezala, orain teknologiak eta sare sozialak herritarren bizitzetan zeharo txertatuta daude, baina horiek marko globalekin konektatzen dute jendea, ez tokikotasunarekin, eta horixe da Herri Mugimenduentzat dakarten arrisku nagusia. Hala eta guztiz ere, tresna bezala ulertu behar ditugu zeren, ez baditugu erabiltzen, gure borrokak galduko du edo soilik teknologien aurka dauden gutxi horiek izango dute lekua gure kolektiboetan. Nik nahiago dut ulertu Herri Mugimenduen ekosistema galaxia anitz eta zabal bezala, zeinetan askotariko ikuskerak diren zilegi.

> ***Ez dugu behar jendea denaren alde eta etengabe borrokan, baizik eta momentu jakin batzuetan borroka jakin batzuetara lotzen den jendea”***

Testuinguru berri honetan, Herri Mugimenduok zailtasunak ditugu borrokak masifikatzeko. Eta hori, neurri handi batean, gertatzen da ahaztu egiten dugulako nola funtzionatzen duen gaur egungo jendarteak: gizarte hipermoderno batean bizi gara, hiperarrazionala da, jendeak baditu emozioak eta tradizioa baina, batik bat, kalkulu arrazionalak egiten ditu, baita proposamen militanteen aurrean ere. Alegia, jendeak balantzan jartzen du ze inbertsio mota egingo duen eta nolako emaitza aterako den horretatik. Beste era batera esanda: jendea prest dago, adibidez, hiru hilabetez musutruk aritzeko sinesten duen horretan, laguntzaile izateko, baina soilik baldin eta egiazko emaitza baten bermea ikusten badu. Eta hain justu lorgarritasun hori da landu behar duguna, askotan ez baitugu ongi definitzen. Proposamen militanteak eguneratu behar ditugu, beraz; moldeak, kodeak, tresnak... eta borrokarako grina erlatibizatu. Izan ere, ez dugu borrokatu behar borrokatze hutsagatik, baizik eta irabazteko. Eta ez dugu behar jendea denaren alde eta etengabe borrokan, baizik eta momentu jakin batzuetan borroka jakin batzuetara lotzen den jendea.

Euskal Herrian dugun altxorrik handiena herritar antolatuak dira; nor bere auzoan, herrian, eskualdean, esparru eta borroka mota ezberdinetan, askotariko intentsitateekin... baina antolatuta. Eta Herri Mugimenduek aurrera egin badute izan da herritarren pultsuarekin batera aritu direlako, herritarrei konektatuta. Historikoki hala egin dugu, horretan ari gara ongi, eta hori atxiki behar dugu.



Herri Mugimendua(k)



> ***Sistemak birproduzitzen duen jendarte ereduaren kontra, metabolismo sozial berri bat eraikitzen ari gara”***



ULISES DOMECH VILLAR

Iruñea, 1996

Militatzen hasteko arrazoiaz galdetuta, argi du erantzuna: "auzo honetan jaio ginelako". Umea zelarik ezagutu zuen Alde Zahar hartan, Iruñean, manifestaldiak eta poliziaren kargak eguneroko ogia ziren. AZ Sare Komunitarioaren parte den Aldezar Eskola Komunitarioko udalekuetara eramaten zuten gurasoek, eta han, jolasen bitartez, ikuspegi soziala eta berak "barrionalismo" deritzon horretan hezitu zuten.

"Horregatik, 13 urte genituenean Gazte Asanbladako bileretara joateko esan zigutenean, pentsatu gabe egin genuen, naturaltasun osoz". Ikasle Abertzaleak-en ere orduantxe hasi zen jarduten. 17 urte bete orduko auzo hezitzaile bilakatu zen Aldezarreko Eskola Komunitario hartan, eta auzoarekiko ardura handiagoa sentitzen hasi zen. Gazte Zukgu-an parte hartu zuen eta Unibertsitatean, Zaragozan, CEPA sindikatuaren baitan bizi izan zituen hainbat esperientzia. Euskal Herrira itzulita, zenbait gaztetxeren lanketan parte hartu zuen; azkenak Kaparrosokoa, Maravillas eta Matalaz izan ziren, eta Koadro Eskolaren jaiotzan ere aritu zen.

Gaur egun, batez ere, AZ sarearen barruan dagoen kirol klubean, AZKn, eta Koadro Eskolan dihardu, eta dinamizatzen dituen formakuntza taldeetan beti azpimarratzen ditu bi ideia: "egiten dugunarekiko maitasunez jardutea eta egiten dugun moduarekiko naretasunez aritzea". Izan ere, zenbaitetan "produktibitatearen larritasuna" sentitzen du militantzian gailendu diren moduengatik, abiaduragatik, eta lan militantea erlatibizatzeko eta sentitzeko deia luzatu nahi du. Prozesu honen ondorioak ezagutzeko irrikaz dagoela aitortuta hasi da.



> ***Qure lana auzo eta herrietan egitea lehenetsi behar dugu: globalean pentsatu baina lokalean errotuta ekin”***

Langile klasearen interesen alde antolatzen eta mobilizatzen den herri gisa ulertzen dut Herri Mugimendua, herri langile antolatua bezala. Arratsalde batean manifestazio batera joatera animatzen den familia eta egunero batzarrak dinamizatzen dituen langilea, biak ala biak, dira Herri Mugimenduen parte, biak baitira prozesu zabal eta luzeago baten parte. Izan ere, etorkizunean nagusi izanen den kontrahegemonia bat egituratzen ari gara, eta horretan denon ekarpena da beharrezkoa. Boterea bizitzaren dimentsio guztietan dagoenez, bizitzaren dimentsio guztietan borrokatu behar dugu, eta hamaika forma daude hori egiteko.

Eraginkortasun politikoa lortzeko ezinbesteko baldintza da bizi garen auzo eta herrietan lehenestea gure lana, hau da, globalean pentsatzea baina lokalean errotuta ekitea. Antolakuntza-espazio nazional zein internazionalak dira beharrezkoak, baina hauek ongi errotuta egon behar dute gure herriaren egunerokotasunean. Nolabait, etorkizunerako nahi dugun jendarte mota aldez aurretik irudikatu behar dugu lurraldean. Horretarako, hezkuntzak du berebiziko garrantzia, bere adiera zabalenean. Borrokaren jarraikortasuna bermatu behar dugu; etorkizuneko belaunaldiek gure kultura politikoa hobetu dezaten, dagokion sistematizazioa eta metodologia eraikitzeko erronka dugu.

Modu horretan, belaunaldi berriak prozesuaren parte sentituko dira modu naturalean, eta aurreko ikasketen motxila edo oinordetza beregain hartuko dute baita ere. Heziketa horrek sortuko dituen baldintzak egonkortzea eta zabaltzea lortzen dugunean izanen gara benetan politikoki eraginkorrak. Esate baterako, azken 20 urteetan gure auzoko mugimenduan parte hartu duten gazteen %90 baino gehiago pasatu izan dira lehenago Aldezar Eskola Komunitariotik.

Herri Mugimendutik eta mugimendu politizatuetatik, ordea, ez zaio behar bezainbesteko garrantzia aitortzen hezkuntzari. Aldezar Eskola Komunitarioa, adibidez, espazio ez-politizatutzat jo izan dute, nahiz eta gure auzoaren hazkundean zeharo zentrala izan den. Tamalez, Euskal Herri mailan gertatzen den zerbait da.

> ***Bizitzaren dimentsio ezberdinetan hedatu behar dugu kontrakultura, ohitura eta errutina berriak asmatzen segitu behar dugu”***

Gaur egun, Europako mugimendu iraultzailearen porrotak eraginda, politika ulertzeko modu jakin bat nagusitu da: lau urtean behin egiten dela eta trajedun pertsona batzuen lana dela. Guk kontrako narratiba hedatzeko ardura dugu: bizitzaren arlo guztietan egiten dugu politika, alde batera zein bestera, kontzienteki nahiz inkontzienteki. Baina, gauza bat argi eduki behar dugu: norbanakoa ez bada modu kontzientean sartzen erabaki kolektiboetan, politika boteretsuen eskuetan utziko du. Azken finean, politika zuk egiten duzu, ala besteek egiten dizute.

Sistemak birproduzitzen duen jendarte ereduaren kontra, metabolismo sozial berri bat eraikitzen ari gara Herri Mugimendutik: bizitzaren erreprodukzioan, komunitatean eta ongizatean oinarritutako jendartea. Horregatik, bizitzaren dimentsio ezberdinetan hedatu

behar dugu kontrakultura; ohitura eta errutina berriak asmatzen segitu behar dugu, eta horien hedapen sozialean nahiz erradikaltasunean sakontzen. Askok pentsa dezakete horrek ezin duela alde batera utzi alderdi iraultzailea eraikitzea edo botere instituzionala eraikitzea; eta ez, ez luke hala behar, baina mendebaldeko mugimendu iraultzaileok hain zentratuta egon gara helburuetan, ezen prozesua nola egiten den ahaztu baitugu. Alderdi estrategikoek eta alderdi elektoralek, borrokarako beste tresna askok bezala, berezko logikak dituzte eta, gehiegitan, logika horiek kontrolatzen dute prozesu iraultzailea, eta ez alderantziz.

Borrokarako tresna horiek kotxe bat dira, aurrera egiteko bitarteko bat, baina ez neutroa, bere inertziekin eta baldintzekin dator-eta. Gidaria herri langile antolatua litzateke baina, momentu honetan, Euskal Herrian zein mendebaldean, subjektu hori ume bat da. Ez da gai kotxe aurrean duena oso ongi ikusteko, ez du indar handirik bolantea manejatzeko, ez da pedaletara ongi iristen... Hortaz, borroka tresna horiek erabili behar al ditugu? Bai! Baina heldu gaitezen subjektu gisa, josi dezagun herri antolatu boteretsu bat. Bestela, oso azkar eta oso zuzen joanen gara aurrera, baina labarrean behera eroriko gara.

Gainera, subjektu horren ontzea aurrerago etorriko denaren kontrako prestaketa onena izanen da. Izan ere, gure historiak erakutsi digu askotariko antolakuntza formak erortzen ahal direla, baina ez herri antolatua.

> ***Lurraldetasun eta komunitate kontzeptuei eman behar diegu zentralitate estrategikoa"***

Aurrera begira, auzoetan alternatiba errealak sortu behar ditugu krisi klimatikoari zein energetikoari aurre egiteko, baita etxebizitzaren nahiz etorkinen auziari heltzeko ere eta, azken batean, herri langile bezala ditugun behar guztiei antolakuntzatik erantzuteko. Lana, zerbitzuak eta azpiegiturak lortu behar ditugu. Horretarako, antolakuntza-espresio desberdinak sortu behar ditugu: herri langilearen kontraboterea eraikiz zenbaitetan, eta instituzioei aldarriak eginez edota eskumenak gure eginez beste zenbaitetan.

Sustatu dezagun kohesio soziala antolakuntzaren eskutik, sendotu dezagun kultura komunitarioa, normaliza dezagun auzolana eta egiten dugun aisialdi espazio bakoitzari helburu kolektibista bat ematea. Betiere ulertuz ez garela berdinak, ez ditugula baldintza berdinak, ezta pentsaera berdina ere, eta hori ez dela txarra, hain justu hori baita komunitatea. Desberdintasunak onartu eta batasunak bilatu behar ditugu tokian toki. Etsaiek elkarrekin kolpatzen dute, goazen elkarrekin defendatzera. Aldaketa kulturalak mendeetako prozesuak dira eta ez dira soilik maila terminologikoan edo sinbolikoan gertatuko. Aitzitik, erlazionatzeko aldaketa sakonen eskutik etorriko dira, izan arlo ekonomikoan, afektiboan, mistikoan, politikoan zein bizitzako beste dimentsio guztietan. Hortaz, apaltasun eta naretasun estrategikoa, pazientzia eta inurri lana.

Faxismo liberalaren askotariko aurpegiek beren alde dute teknologia, eta hain justu YouTubeko bideoen bidez eta txio kolpez ari dira langile-klasea berenganatzen. Guk hor egon behar dugu? Bai, noski. Baina kaleko oinarri errealik gabe ez dago etorkizun iraultzailerik eta, horregatik, guk orain horren bueltan ardaztu behar ditugu indarrak: auzoetan kontrahegemonia bat sortzen. Lurraldetasun eta komunitate kontzeptuei eman behar diegu zentralitate estrategikoa. Izan ere, lurraldetasunean datza klase-borrokan herriok dugun ahalduntze gaitasuna; horregatik zabaltzen da gerrila-guda taktika bezala indarrak desorekatuak direnean. Hainbat arlotan ezin dugu estatuaren aurrean lehiatu, baina bai lurraldean, komunitatetik, eta hortik gora: maila nazional zein globaleko klase guda.

Herri Mugimendua(k)

Eraginkorra(k) ote?



H.BILBAO - EUROPA PRESS

“Qauzak gogoz egin behar ditugu eta ez bizi militantzia zama bezala, ezin dugu borrokan irribarrea galdu”



UNAI ISASI AZKARRAGA

Lezama, 1998

Arabako herri txiki batean jaio eta hazi izan zen, eta han ikastetxea zen sozializazio politikorako espazio bakarra. "Ni baino helduagoak ziren lagunak eta arreba ikusten nituen hainbat auzitan inplikatuta –gogoratzen du–, horrek sortu zidan halako ezinegon bat". Ikasle Abertzaleak-en jardutetik Gazte Asanbladara pasatu zen eta, gero, bereziki Ernai gazte antolakundean egin du ibilbidea. Bere hitzetan, batez ere lan-gatazkek egin dute militante. "Aiaraldean lantegi asko itxi dituzte, kaleratze asko izan ditugu... eta, horien aurrean, gazteen erantzuna Ernaik artikulatu du". Testuinguru zehatz horretan Ernai subjektu oso aktiboa izan dela dio eta horrek, neurri handi batean, munduari begiratzeko era baldintzatu diola.

"Ni bezalako zoro gehiago dago!" pentsatu omen zuen gonbite hau jaso zuenean, eta sentitzen duen frustrazioaren iturbururen bat argitu nahian heldu dio ideiak astintzeari. Uste baitu Herri Mugimenduetako kideek zenbait zalantza eta hutsune konpartitzen dituztela, eta komeni dela horiez hitz egitea.



> ***Kezkak gizarteratzea eta jendeak arazo horiei zein prismatatik begiratzen dien aldatzea lortzen badugu, eraginkorrak gara"***

Kezka politiko sendoak dituzten pertsonak daude Herri Mugimenduen oinarrian; problematika jakin batzuen inguruan artikulatu eta antolatzen dira, badakitelako soluzioa ez dela beste inorengandik etorriko. Talde txikiagoak edo handiagoak izan daitezke, nork bere ezinegonak ditu... zentzu horretan, aniztasuna gaur beste inoiz baino handiagoa da eta subjektu unibertsalak ez dira existitzen.

Hainbat perspektibatatik errepara dakioke Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoari. Alde batetik, elkartzen den pertsona-talde horrek bere helburuak lortzeko duen gaitasuna izan daiteke. Xedeak betetzea garrantzitsua da zuk zure burua eraginkor sentitzeko ere. Baina horrek, era berean, badakar arrisku bat: taldeek eroso sentitzeko moduko helburuak finkatzea, egiten ari direnaz eta lortzen ari direnaz seguru egoteko. Horregatik, oinarri-oinarrizko pausoa da helburuak ongi definitzea, baina ez Herri Mugimendu jakin baten arrakastarako egokiak direlako, arazoei aurre egiteko aproposak direlako baizik.

Problematikak sozializatzeko, jendearengana heltzeko eta pertsonen begirada aldatzeko duten gaitasunaren arabera ere neur daiteke Herri Mugimenduen eraginkortasuna. Batzuetan bataila handiak irabazten ditugu, beste batzuetan txikiak, beste batzuetan denak galtzen ditugu... baina bidean kezkak gizarteratzea lortzen badugu, eta jendeak arazo horiei zein prismatik begiratzen dien aldatzea edo behintzat pixka bat moldatzea lortzen badugu, eraginkorrak gara.

Aiaraldean, esate baterako, SOS Aiaraldea gisa ezagutzen den Greba Batzordetik lortu dugu lan-heriotzen problematika eskualdeko biztanleen gogoetan presente egotea. Udalerri guztietan daude hildakoen kopuruak jasotzen dituzten panelak ikusgai. Borroka honen intentsitatea Ernaik igo zuen, zenbait ekimenetan margo gorria erabiliz eta euren gorputzak erabiliz. Arreta erakarri zuten, iritzi publikoa astintzen segitu dugu gerora ere eta, gaur egun, sindikatu guztiek ikusten dute bere burua behartuta gurekin batera mobilizatzera. Euskal Herri mailan, Mugimendu Feminista bereziki eraginkorra izan da bataila ideologikoan, ideien borrokan. Emakumeek ez dute bere burua askatu, gizonok ez dugu gehiegi lagundu... baina ideia jakin batzuk erdigunean jarri eta horien bueltan askotariko jendea aglutinatzeko gai izan dira.

> ***Publiko zabalarengana iritsi nahi badugu, guk ere ideia soilagoak eta azkarragoak errepikatzearen logika hori probatu behar dugu"***

Azteegia naiz Euskal Herriaren testuinguru politikoan oso-oso atzera begiratzeko, baina aurreko ziklotik hona nabarmen antzematen dut 'mainstream' zer den, nori begiratzen eta entzuten diogun, aldatu egin direla. Lehen, korronte nagusia zen Ternua eta Salomon janztea eta 'jurru' bat izatea, eta ondoko herriko Gazte Asanbladak urte horretako Gazte Egunerako sortutako abestia entzuteko irrikaz egoten ginen. Giro hura, jakina, mesedegarria zen Herri Mugimenduentzat eta, bereziki, ezkerreko mugimenduentzat. Gaur egun Bad Bunny ikustera joan nahi dugu Madrilera. Tira, bada, gai izan behar dugu mundu honetan ere eragiteko, zailagoa izan arren.

Alde batetik, panorama berri hau argigarria da balio digulako jakiteko benetan nork eta zenbatek sustengatzen ditugun Herri Mugimenduak; alegia, lehen jende asko zebilen hurbil, baina beharbada soilik 'mainstream' ginelako, eta ez konbentzimendutik. Neurri berean, ziklo aldaketak ahalbidetu digu lehen pentsaezina zitzaigun jendearengana iristea. Zenbaitek iraganeko garaiak idealizatzeko joera dute eta "zenbat eta okerrago egon, borrokarentzat hobe" pentsatzen dute, baina nik benetan uste dut gaur egun jende pila bat artikulatzen dela eta mobilizatzen dela kausen alde. Kontua da kezka edo behar horiek aldatu egin direla eta, batez ere, sakabanatu egin garela, borroka asko eta askotarikoak daude orain. Batzuek hori muturrera eramaten dute eta soilik beren iritzitik edota beren gustuetatik eragiten dute, maiz politikoki zuzena omen den horretatik aldendu gabe. Hori ere bada gaur egungo errealitatearen ezaugarri nabarmena, eta asko frustratzen nau gainera.

Mezu horiek, neurri handi batean, sare sozialetan mugitzen dira. Eta horren harira dugun lehen-lehen arazoa da eskuin muturrak eskuin muturrarentzat pentsatu dituen tresnak erabiltzen ari garela. Ideia arinak bonbardatzeko diseinatu dituzte, baina gu gabiltza gure eskema ideologiko zehatz eta konplexuak horra eraman nahian, eta txio-hari infinituak sortzen ditugu, soilik gu bezalako frikiek irakurriko dituztenak. Autokontsumorako komunikazioa egiten ari gara. Publiko zabalarengana iritsi nahi badugu, guk ere ideia soilagoak eta azkarragoak errepikatzearen logika hori probatu behar dugu.

Gainera, ez dut uste sare sozialetan modu horretan aritzeak fokua kaleetatik aldenduko duenik. Eskuin muturra da horren adibide garbia: ez da auzoetan antolatzen, ez dago herritarren bizitzetan presente, baina sare sozialetan eragiteko gaitasun handia du eta hori gero kalean islatzen da. 15M mugimendua ere, horrela ondu zen: Espainian ezkerretik antolatzen zen jendeak, bereziki gazteek, beste eskema batzuk behar zituzten, horiek Internetek eman zizkien, eta gero horrek kalean egin zuen eztanda.

> ***"Ez gara besteen kausetan inplikatzen eta ez dugu sentitzen besteen aldarrikapenek interpelatzen gaituztenik"***

Euskal Herriko Herri Mugimenduetara itzulita, atomizazioaren aurrean, borrokak elkar lotzen jakitea da eduki dezakegun bertute nagusia. Gurean, Herri Mugimendua subjektu bakar bezala diluitu egin da, orain subjektu anitza izan behar dugu eta, batez ere, besteen borrokak gure sentitu behar ditugu. Horretan, tamalez, jauzi handia eman behar dugu, ez baikara besteen kausetan inplikatzen eta ez dugu sentitzen besteen aldarrikapenek interpelatzen gaituztenik. Besteen azalean jartzea falta zaigu eta, adibidez, Baztango Aroztegiaren auzia Bilbon ere sentitzea eta lanplangintza horretara bideratzea. Badakit denera erdizka iritsi nahi izan eta ezer ez lortzeko arriskua dagoela, baina hori ere asumitu behar dugu.

Erronka horri eta etorkizunean sortuko diren beste batzuei aurre egiteko, inportantea da konbentzimendua, baina kolektiboki eraikia. Konbentzimendua ezin da, ordea, helburu bilakatu. Hau da, prozesu parte-hartzaile ikaragarri luzeak ez dira praktikoak eta jendea urrunarazi dezakete. Aldiz, planak eta proposamenak egin behar ditugu, aliantza zehatz batzuk bilatu eta begirada zabaltzeko asmoan eta gogoan sinetsi.

Baina, batez ere, ezinbestekoa da ilusioa. Gauzak gogoz egin behar ditugu, eta ez bizi militantzia zama bezala. Hobe da inplikazio-maila jaistea baina egiten duzun horretan gustura aritzea. Porrotak erlatibizatzen ikasi behar dugu, oso kristauak gara-eta, gure burua gehiegi zigortzen dugu. Bizitza berez nahikoa gogorra da, horrenbestez, ez dezagun gure burua are gehiago ito, ezin dugu borrokan irribarrea galdu. Gainera, beti haserre, frustratuta eta kopetilun dagoen jendea ez da erakargarria. Nor hurbilduko da zuregana are gehiago larritzera?

Herri Mugimendua(k)



EFE

> Qaur egun, Herri Mugimenduek presiorako mekanismo gisa funtzionatu behar dute, hori da daukaten ahalmen garrantzitsuenetako bat”



ZIGOR MERODIO LARRAONA

Bilbo, 1974

Askapena erakunde internazionalistan hasi zen militatzen 15 urte zituenean, besteak beste Nikaraguan, Salvadorren, Ipar Irlandan... borroka prozesuak pil-pilean zeudenean. Bilboko Alde Zaharrean bizi zuten "mikroklima" gogoratzen du, eta nola "errepresio eta ezberdinkeria" horrek eraman zuen Jarrai-ra engaiatzera, gero KAS-era pasatzeko. Garai berean sartu zen Euskadi Ta Askatasuna (ETA) erakundean. 1996an etxetik alde egin zuen eta 2006an atxilotu zuten. 14 urte eman zituen espetxean, eta bitarte horretan Euskal Preso Politikoen Kolektibokoan (EPPK) aritu zen.

2019an atera zen kartzelatik, eta Sortu alderdi-mugimendura batu zen orduan. Bi urtez aritu zen horretan. Gaur egun Bilbo-Palestina Herri Ekimenean dihardu militante bezala, "eta Alde Zaharreko auzoko zenbait saltsatan ere bai".

Inguruan ikusten dituen "desmobilizazioa eta indibidualismoa" kezkaz bizi ditu. Europan eta munduan hainbat hamarkadatako epean gertatu zena Euskal Herrian urte gutxitan gauzatu dela dio: "Mundualizazioak, kontsumismoak eta indibidualismoak zailagoa zuten Euskal Herrian hedatzea, artean bizi genuen egoera politikoagatik, tartean borroka armatuak zuen inpaktuagatik. Ziklo hura bukatuta, beste guztia olatu bat bezala etorri zitzaigun gainera".



> ***Beti ez dugu lortzen, batzuetan galdu ere galtzen dugu, baina bide horretan kontzientzia bat sortzen dugu”***

Pertsonaz osatutako kolektiboak dira Herri Mugimenduak. Edozein arrazoi edo helburu dela medio batzen gara: zerbaiten alde edo, kasu batzuetan, zerbaiten kontra. Kontzientziadun jendea lotu ohi da Herri Mugimenduetara, jende saltseroa, ezinegon politikoren bat dugunak. Nork bere barrikada bilatzen du, nork bere lekua ekarpena egiteko.

Herri Mugimenduen indarraz gauza asko lortu izan dira: iraganean, Bilboko Alde Zaharrean, esate baterako, kaleak oinezkoentzat jartzea; eta, aurten, Urdaibain, Guggenheim Museoaren zabalpena ekiditea. Borroka armatuak berak ere helburu taktiko asko erdietsi zituen: Trantsizioa baldintzatzea Carrero exekutatuta, edota Lemoiz geldiaraztea, adibidez. Oro har, kultura politiko oso bat sortu dute. Eta gaurko erronkei aurre egiteko ondare bezala jaso ditugu, besteak beste, herriaren askatasun gosea, kolektibotasunetik herri bezala pentsatzeko gaitasuna edota nork bere ekarpen kualitatiboa egiteko bultzada.

Gaur egun, batez ere presiorako mekanismo gisa funtziona dezakete Herri Mugimenduek, hori da daukaten ahalmen garrantzitsuenetako bat. Kontraboterea izan daitezke, interes ekonomiko zehatzetatik datozen presioen aurrean kontrapisua egiteko: instituzioak estutzea, herrien interesen alde jardun dezaten. Egungo testuinguruan, horrela aritzea eraginkorragoa izan daiteke. Herri Mugimenduek beraiek beren bitartekoekin helburuak erdietsi ditzaketenean horrelaxe jardutea ere oso egokia da, noski; eta Urdaibaiko adibidera itzuliko naiz: arazo zehatz baten aurrean, herria, antolaturik, aurre egin eta gailendu egin da Eusko Alderdi Jeltzaleak babesten dituen sasi-interesen gainetik.

Beti ez dugu lortzen, batzuetan galdu ere galtzen dugu, baina bide horretan kontzientzia bat sortzen dugu, herria egiten dugu, kate-begi berriak lotzen ditugu.

> ***Arazoak eta helburu zehatzak testuinguru global batean ulertu behar ditugu, dena lotuta baitago”***

90eko hamarkadara arte, Nazio Askapenerako Mugimenduarekin bat egiten zuten Herri Mugimenduak estankoak ziren, eragin-esparru orokor bati lotuak: internazionalismoan, Askapena; ekologismoan, Eguzki... Gaur egun, baina, bestelakoa da militatzeko modua, likidoagoa. Sortzen diren arazo zehatzei erantzuten dieten taldeak eratzen dira, propio eta testuinguru jakin batean. Behin antolaketa eragin duen arazo hori gaindituta edo pasatuta, taldea desagertu egiten da. Kideek beren ekarpena beste leku batean egingo dute aurrerantzean. Edo, beroaldi-abagune horretan aktibatu diren beste pertsona batzuk, agian, desmobilizatu egingo dira. Edonola, denek utzi dute beren alea. Kontzientziazio- eta ikasketa-prozesu baten parte izan dira, eta horixe bera etxera edota beste esperientzia batzuetara eramango dute. Aldi berean, 24 orduko militantzia deitu ohi dugun horrek beharrezko eta baliagarri izaten jarraitzen du; eta molde berriekin batera existitu daiteke. Maiz, baina, ez ulertzera eta, are, estigmatizatzera ere ailegatu gara.

Edozein kasutan, militantziak kritikoa eta eraikitzailea izan behar du. Egiturak, berez, kontserbatzaileak eta zurrunak dira, ez dira freskoak. Eta horregatik dute termometroa kalean jarria. Termometro hori geu gara, herri-boterean sinesten dugunok. Kalean militatzen dugunon ikuspuntu kritikoa



ezinbestekoa da. Jakina da lorpen handiak erdiesteko eragin esparrua zabaldu behar dugula, herri oso bat konbentzitu behar dugu horretarako, borroka-gune eta eremu sozial guztietan egon behar dugu, baita instituzioetan ere. Baina ahalegin guztia instituzioetan jartzea akats handia litzateke. Erakundeetan ematen den borrokaren eta kalekoaren arteko oreka ezinbestekoa da.

Herri Mugimenduak hartu dituen forma berriek atomizazio-arriskua dakarte: nor bere borrokan aritzea, batzuetan besteengandik deskonektatuta, ingurura begiratu gabe. Horrek ahuldu egiten gaitu. Arazoak eta helburu zehatzak testuinguru global batean ulertu behar ditugulakoan nago, dena lotuta baitago. Etsaiak berak oso ondo daki hori.


> ***Militanteak ahalduntzeko, hurbileko arazoei aurre egiteko helburu lorgarriak planteatu behar ditugu”***

Sare sozialetan erronka handia daukagu. Eskuin muturreko mezuek izugarri kutsatu gaituzte; gureak, aldiz, askotan ez dira iristen, ez dugu asmatu oraindik. Baina horrek ez du esan nahi ez dugunik hor egon behar. Potentziala badago, jendea ere bai, komunikatzaileak... asmatu behar da nola egon edo aritu hor. Izan gaitezen sator haiek gudu-zelai gisa ulertzen dituzten eremuetan ere. Eta hori ez da bateraezina gune alternatiboak sortzearekin edo jada existitzen diren horietan egotearekin.

Herri Mugimenduak militantzia eskolak dira, urteetan milaka ikasle trebatu dituzte eta horretan segitzen dute, esperientziak eta estrategiak sortzen, asmatzen. Azkenaldian aldaketa politiko eta sozial handien lekuko izan gara, dena dabil oso azkar, berehala aspertzen gara, estrategiak ere epe motzean agortzen dira... Gure estrategiak eta eguneroko praktikak errealitate berrira moldatu behar ditugu. Erronka zaila da, politika ez baita azkar eta epe motzera begira egiten. Baina piztu ditzagun argi luzeak: nola ekin eta jardun borroka-maratoi honetan? Gure burua etengabe berrasmatu beharko dugu.

Oso inportantea da, baita ere, itxaropena. Garai batean garaipena epe motzean lorgarri ikusten genuen, gure indar guztia horretara bideratzen genuen, etengabeko esprint batean bizi ginen. Gaur badakigu borrokaren azken helburuak ez direla bihar gauzatuko eta borrokan segitzeko estimuluak behar ditugu: egunez egun burutu ditzakegun aurrerapausoak. Militanteak ahalduntzeko, hurbileko arazoei aurre egiteko helburu lorgarriak planteatu behar ditugu.





Joxemi Zumalabe Fundazioa

Bizi lur

Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako Erakundea
Asociación para la Cooperación y el Desarrollo de los Pueblos